1919·2019

ARGIA

Polimaitasuna

SEI BIZIPEN, HARREMAN ASKEAGOEN BILA

#2.640 | 2019/04/14 | 3,90 €

"Erraustegi mondernoenek ere dioxinak isurtzen dituzte"

10 | ABEL ARKENBOUT

"Kolonbian libre eta bizirik jarraitzeko berme gutxi neukan"

30 | MATEO GUTIERREZ

"Bizitzak zeharkatzen ez duen performanceak ez du inolako interesik"

44 | ESTHER FERRER

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN…

LARRUN # 241
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA

GLOVOLIZAZIOA

ARGIA.EUS/LARRUN

ARGIA

2.640 zenbakia I Apirilak 14, 2019

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I GAIZKI ERRANKA
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
AINARA AZPIAZU ADURIZ *AXPI*

Iritziak

19 I IRATI LABAIEN EGIGUREN
20 I SONIA GONZÁLEZ
21 I HAIZEA NUÑEZ
21 I CASTILLO SUAREZ
22 I IVÁN GIMÉNEZ

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

38 I BIZI BARATZEA
40 I ARGIA KOMUNITATEA
47 I DENBORAREN MAKINA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA:
AMANDA FIGUERAS
54 I BERANDUEGI

JOSU SANTESTEBAN

52 I AMANDA FIGUERAS
Islamaren inguruan irakurri eta ikasi ahala joan zen federa hurbiltzen. Une batetik aurrera bere erlijio egin zuen, familian aurrekaririk izan gabe, Madrilen. Ordutik, islamofobiaren aurkako lanean dihardu, erlijioaren inguruko tabuak hautsi nahian. Ander Perez mintzatu da berarekin.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 I ABEL ARKENBOUT, TOXICOWATCH
"Erraustegi mondernoenek ere dioxinak isurtzen dituzte"
Pello Zubiria Kamino

14 I ONINTZA ENBEITA
"Lotsatu gara bertso munduaz gauza txarrak kontatzeaz"
Danele Sarriugarte Mochales

24 I POLIMAITASUNA
Sei bizitza testigantza harreman sexu-afektibo askeagoak helburu
Z. Oleaga

30 I MATEO GUTIERREZ LEON, IHESLARI POLITIKOA
"Kolonbian libre eta bizirik jarraitzeko berme gutxi neukan"
Lukas Barandiaran

32 I HISTORIA
Hondarribia, atzoko zabalgunetik biharko metropolira
Kote Guevara

34 I 'EUSKARA ARI DU' EKIMENA
1.117 erronkalari, hernaniarrak xaxatzen
Onintza Irureta Azkune

36 I AHOTSA.INFO-K 5 URTE
Kalearen ahots, *aldaketa*-ren akuilu
Xabier Letona

42 I 1993-2018 · EUSKAL ZARATA
Antibirtuosismotik, herri musikara
Jon Urzelai

44 I ESTHER FERRER, ARTISTA
"Bizitzak zeharkatzen ez duen performanceak ez du inolako interesik"
Jone Alaitz Uriarte

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Fernández, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da Argia honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

Argiako edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

eltb
Klika
363
aek
21. korrika

Argiari eutsi

ARGAZKIA I **AEK**
TESTUA I **ONINTZA IRURETA AZKUNE**

Gaueko hozkirrian korrikalari batzuk atzera begira ari dira, lekukoa daramatenak berriz aurrera begira eta irribarretsu doaz. Ez dakigu euskararen etorkizunaren isla den poz aurpegi hori. Duela gutxi, AEK-ko koordinatzaile Mertxe Mujikari geroari buruz gogoeta egiteko eskatu genion. Aipatu zituen erronken artean zen ezagutzaren unibertsalizazioa: "Nahitaez sakonago jorratu beharreko gaia da. Euskal Herriko biztanleen erdiak oraindik ez daki euskaraz. Egoera hori irauli ezean, nekez izango da jauzi itzela erabileran". Gau iluna ikusten da argazkian. Korrikaren argiari heldu beharko diogu.

USTE NUEN NI NINTZELA BAKARRA, BAINA IKUSTEN NABIL KORRIKAREKIN NEGAR EGITEA OROKORRA DELA

@txargain

MUGARIK EZ EUSKARAK. HENDAIA ETA IRUN ARTEKO SANTIAGOKO ZUBIA BART GAUEAN

@julenurkia

ELURPEAN ERE EUSKARAREN ALDE! IKARAGARRIA IZAN DA IBAINETA BEITIKO IBILBIDEA. GORA PIRINIO EUSKALDUNA!

@arkaitz_eus



JEAN-RENÉ ETCHEGARAY EUSKAL ELKARGOKO LEHENDAKARIAK EUSKARAREN ALDEKO ENGAIAMENDUA BERRETSI ETA LEKUKOA EUSTEN DU KANBON

@lurrebidegain

BARTZELONAKO KALE SALTZAILEEN SINDIKATUAK DARAMA LEKUKOA ORAIN. ERAGILE SOZIALEI ESKAINTZEN DIE KORRIKA BATZORDEAK AUKERA HORI. MEZUA ARGIA DA: INOR EZ DA ILEGALA

@larbelaitz

Hiru preso hil dira Zaballan 2019an

ARGIA

Zaballako espetxean preso zegoen gazte arabar bat hil da apirilaren 2an. Joan den otsailean beste gazte bat hil zen, espetxe berean, eta joan den urtarrilean, hirugarren bat.

Ustez suizidiotzat jo dituzte azken bi kasuak Espetxe Erakundeek. Urtarrilekoan, autopsiaren arabera heroina gaindosiak akabatu zuen presoa. “Heriotza isilaraziak dira, gehiago daudela badakigu”, adierazi zuen orduan Salhaketak. Preso daudenen artean, %80ak baino gehiagok du drogomenpekotasuna.

Heriotza horren ostean, Salhaketak gaineratu zuen espetxeetako arduradunek oztopoak jartzen dituztela gorpua ikusteko edota zer pasa den jakiteko: “Preso dauden pertsonak eurak bigarren mailako herritarrak badira, senideekin berdina gertatzen da”, zioten, Hala Bedi irratiak jaso zuenez. Azken urteetan Espainiako Gobernuak gestionaturiko espetxeetan gertatutako heriotzen %10 ere ez direla ezagutzera eman baieztatu zuen elkarteak.

HERIOTZEI AURRE EGITEKO NEURRIAK

Horrez gain, gai honen inguruan hainbat neurri proposatu zituen Salhaketak: hala nola, Fiskalak heriotza guztiak iker ditzala, ofizioz; senideei informazio guztia eta babesa ematea heriotza horien inguruan eta jakinaraztea auzitara jo dezaketela, gertatu denaren gaineko ardurak argitzeko; espetxea ez bestelako aukerak mahai gainean jartzea, esaterako drogamenpekotasuna dutenen kasuan programaren batean sartzea; larri dauden presoak kaleratzea; eta espetxeetako masifikazioa amaitzea.

GAIZKI ERRANKA

Jende arraroa

SANTI LEONÉ

Polemika ekarri du Rammstein-en kanta –"Deutschland"– berriaren bideoak. Edo, hobeki erranda, kanta berriaren bideoaren iragarkiak piztu du kalapita. 35 segundoz, taldeko lau kide ageri dira kontzentrazio esparruko uniformea jantzita, urka-bilurra lepoan, exekutatzeko agindua noiz ailegatuko. Melodia malenkoniatsu bat bertzerik ez da aditzen. CSUko politikari batek Dachau bisitatzera gonbidatu du taldea; gobernu federaleko antisemitismo auzietarako arduradunak "askatasun artistikoaren gustu txarreko erabilera" egotzi dio taldeari. Apalago, bertze zenbaitek azpimarratu dute Holokaustoa ez litzatekeela erabili behar amu komertzial gisa.

Hori, amu hutsa, bertzerik ez baitzen iragarkia: bideoa argitaratutakoan, martxoaren 28an, argi gelditu da kontzentrazio zelaikoa pasarte bat bertzerik ez dela Alemaniako historiako zulo beltzei emandako errepaso luze batean. Errepaso posmodernoa, zinemako irudien galbahetik pasatua eta Rammsteineko kideen irudimenetik ateratako izugarrikeriekin zamatua. Inork ez du, halere, balizko nazismozaletasunaren arrastorik aurkitu.

Rammstein taldekideak 60ko hamarkadan sortu ziren –1971n, gazteena–, Ekialdeko Alemanian. Halere, bazekiten juduen uniformea janzte hutsa –bertzelako keinurik egin gabe, biktimei inolako burlarik egin gabe– probokazioa izanen zela, eta horrek jarraitzaileen jakin-mina piztuko zuela. Hain zuzen ere, erabilera makur hori leporatu diete. Halere, prentsa –*FAZ, Der Spiegel, Die Zeit*– gauza izan da taldearen asmoa kritikatzeko eta bideoan ikusten dena aztertu eta baloratzeko. Bada identitatearen auziaren gaineko ikuspegi ironikoa txalotu duenik, "identitateen inguruko politikak gogortzen ari diren garai honetan". Inork ez du debekatzea eskatu. Inor ez da kartzelara joanen.

Jendea arraroa da Espainiatik kanpo. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"GUZTION ESKUBIDEAK ETA KAZETARION LANERAKO ESKUBIDEA DAUDE JOKOAN"

MIKEL SAENZ DE BURUAGA, HALA BEDI IRRATIKO KAZETARIA
Ertzaintzak kazetaria Mozal Legeaz zigortu ostean, Hala Bedik "informatzeko eskubideari eginiko erasoa" eraman du auzitegietara. "Epaituko direnak Ertzaintzaren eta Eusko Jaurlaritzaren gezurrak dira. Jokoan dagoena ez da gure kasua, ezta isuna bera ere; guztion eskubideak eta kazetarion lanerako eskubidea baizik. Mozal Legearekin, denok gara errudun kontrakoa frogatu arte". **ARGIA.EUS (2019/04/02)**

EKONOMIAREN TALAIAN

Pentsio sistema publikoaren kaltetan

JUAN MARI ARREGI

Europar Batasunak, orain arte izan denaren beste erakustaldi bat eman du. Dena salgai jarri nahi dutenen Europa da, eta ez herrien Europa. Beste behin erakutsi du kapitalismoaren lobbyen zerbitzura dagoela, oraingoan europar pentsionisten kontura. Europako Parlamentuak Norbanako Pentsioen Europar Produktuaren (PEPP, ingelesez) araudia onartu du apirilaren 4an.

Pauso horrek beste kolpe bat ekar dezake pentsioen sistema publikoarentzat, funts pribatuen alde egiten baitu, horiek osatu edo ordezkatzeko, ikusita egunetik egunera gero eta eskasagoak izango direla. Baina non dago eskasia horren jatorria? Sistema publikoak ez dituela pentsionisten beharrak kontuan hartzen.

Europar Batasunak duin bizitzeko adinako pentsio publikoak bermatu beharko lituzke eta estatu kide bakoitzari exigitu beharko lioke euren sistema publikoa blindatzeko. Baina horren beharrean, amore eman du kapitalismoaren aurrean. Arrisku handiko operazioetan inbertitzen diren funts pribatuekin, lobby kapitalistak egoeraz baliatuko dira, sistema publikoaren kontura etekinak pilatzen jarraitzeko.

Euskal pentsionistek batasun, irmotasun eta ausardia handia erakutsi dute orain arte, eta badute beste erronka bat aurrean: kapitalaren zerbitzura dauden merkatarien Europaren kontra borrokatzea. Apirilaren 13an Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan manifestazioak egingo dituzte. Aldarrikapen eta oihuen artean ez dira faltako pentsio sistema publikoaren aldekoak, ezta funts pribatu osagarrien kontrakoak ere, izan ere, euskal administrazioak ere babesten ditu azkeneko hauek. ●

ANALISIA

Kurduen gose grebaz isiltasun itogarria

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Maduroren aurka milaka pertsona gose greba mugagabean baleude, zenbat albistegitan kontatuko ligukete? Beren liderra uharte batean hogei urtez isolatuta dutela salatuko balute, zenbat tertulia edo erreportaje eskainiko lizkiokete? Zenbat politikarik, kazetarik, intelektualek, medikuk, artistak altxako lukete ahotsa baraualdian direnen bizitzaren alde? Protestan direnak hiltzen hasiko balira, zenbat erakundek onartuko lituzkete arduradun politikoen aurkako neurriak? Eta egoera salatzeko beren buruaz beste egingo balute hainbat presok? Eta gobernuak gorpu horiek bahitu eta beren senideak behartuko balitu hildakoak gauez ehorztera, omenaldiak ekidin asmoz? Zer esango lukete beren buruari demokrata deitzen dioten erakundeek? Europar Batasunetik hasi, Tortura Saihesteko Europako Batzordetik eta Amnesty Internationaletik pasa eta Eusko Jaurlaritzaraino –gogoratu Urkullu Guaidóren auto-aldarrikapenean– oso gogor mintzatuko lirateke. Zigor ekonomikoak ezarriko lizkiokete herrialdeari. Gertaera garrantzitsua litzateke, dudarik gabe, gose greba mugagabe masibo bat ez baita txantxetako gauza. Kontua da protestan ari direnak ez direla Velezuelako oposizioko kideak, kurduak baizik. Eta horrek dena aldatzen du, gertatzen ari denarekiko isiltasuna ia erabatekoa da, baita gurean ere. Hamaika herri, borroka bakarra...

Bost hilabete dira Leyla Güvenek protesta hasi zuela Öçalanen isolamendua amaitarazi asmoz, eta geroztik 7.000 dira gose greban, kurduek eman dituzten datuen arabera. Gehienak preso politikoak dira, nahiz eta mundu osoan barreiatuta dauden diasporako kide askok ere bat egin baraualdiarekin. Dagoeneko, gutxienez zortzi dira protestan hildakoak. Guztiek egin dute beren buruaz beste "sakrifizio ekintzen" bidez. Güvenek berak, baita eragile kurdu nagusiek ere –PKK eta PJAK erakunde armatuak barne– sakrifizio ekintzarik ez burutzeko eskatu dute, borroka kolektibo bat dagoeneko abian dela argudiatuz. Preso politikoek salatu dute baraualdia abiatu dutenetik, espetxeko funtzionarioen partetik muturreko bortizkeria pairatzen ari direla. Horrek beren herriaren historian arrastoa utzi zuen epika gogorarazten du: 1980an, Turkiaren zapalkuntza, tortura eta oinarrizko giza eskubideen urraketak salatu asmoz borrokaldia abiatu zuten PKK-ko presoek Amedeko espetxe krudelean. Azkenean, protesta gisa, 1982ko Newroz egunean, bere ziegari su eman eta bere burua urkatu zuen Mazlum Doganek. Zenbat filmetan ikusiko genukeen hori bera sovietarren, venezuelarren edo nazien aurka egin balu? ●

Neska-mutilak izango dira lehen sokan, Beasaingo Loinatz jaietan

DANTZAN.EUS

Neskek eta mutilek osatutako soka aterako da aurten lehenengoz Beasaingo Loinatz jaietako haurren soka -dantzan. Orain arte mutikoak atera ohi zuten plazara aurreskua eta ondoren neskak gonbidatzen zituzten.

BERDINTASUNEAN

Aurten, Beasaingo Udalak Aurtzaka eta Ortzadar Dantza Taldeekin batera adostu duenaren arabera, aurrerantzean neskak eta mutilak izango dira soka horretan, herritar talde batek egindako proposamena ontzat emanez. Aurtengo soka-dantzan gehienez berrogei dantzarik parte hartuko dute, hogei neskek eta hogei mutilek. 7-13 urte bitarteko neska-mutilek aterako dute soka, ekainaren 4an.

GENEROA KONTUAN HARTU GABE

Bestalde, hemendik aurrera, dantzari bakoitzak nahi duen bikoteari dantzatuko dio sokan, generoa kontuan hartu gabe. Orain, lehen sokan aterako diren dantzariak bakarrik ari dira dantza ikasten eta entseatzen, baina azken entsegu orokorretan bikoteek ere entseatuko dute. Dantzariek banaka beraien zatiak ikasi ondoren, bikoteekin batera soka muntatu eta denek batera prestatuko dituzte aurreskuaren zati guztiak.

ZUZEU

BLOGARI AKTIBO, UMORETSU, KRITIKOAK

BILBO. Azkue Fundazioak eta ARGIAk elkarlanean antolaturiko "Blogetan! Blog izarren bila" lehiaketaren sariak banatu ditugu. Kultur arloan *Xerezade* blogak eraman du saria, Jasone Larrinagak eta Ana Moralesek zuzendua. ARGIAko blogari Imanol Epelderen *27 zapata*rentzat izan da gizarte eta politikako saria. Emakumeen kirola sustatzea helburu duen Iruñe Astitzen *Kontra-kantxa* bloga izan da aisia kategorian irabazle, eta zientzia eta teknologiaren arloan berriz, *Laborategia* (Dabid Martinezena). ARGIAk, bestalde, urtebeteko harpidetzarekin saritu ditu *Kablegintza eta kablelariak* eta *Begane* blogak.



PLASTIKOA

22 kilo

plastiko zeuzkan sabelean, Sardinian hilda agertu den kaxalote batek. Albaitariek baieztatu ahal izan dutenez, zetazeoa emea zen eta haurdun zegoen. Adituek ezin izan dute zehaztu animalia zergatik hil den, baina aukeretako bat da normaltasunez elikatzeko zailtasunak izan zituela, desegiten ez diren hondakinak sabelean metatuta edukitzeagatik.

DONOSTIAKO METROA. Eneko Goia Donostiako alkatearen aurrean protesta bizia egin dute Amara Zaharreko bizilagun kaltetuek. Hirian egiten ari diren metroaren obrak gauetan geldi daitezela eskatu eta udalaren "erabateko utzikeria" salatu dute, Giza Eskubideen Zinemaldiaren atarian.

GERNIKA MEMORIAREN LEKUKO. Gernika-Lumoko memoria historikoa, kultura eta giza eskubideak lantzen dituzten zenbait eragile elkarlanean aritu dira Gernikako bonbardaketako urteurreneko ekintzak antolatzen. Webgunea eta egitarau zabala aurkeztu dituzte, mundura zabaltzea helburu.

ELA. Mitxel Lakuntza hautatu dute ELA sindikatuko idazkari nagusi berria. Lakuntza hamalau urtez izan da Batzorde Betearazleko kide, eta hainbat ardura izan ditu sindikatuan. Aldaketa handirik ez dela egongo adierazi du, pertsonak aldatu arren, proiektua mantendu egiten dela argudiatuta.

"ERRAUSTEGI MONDERNOENEK ERE DIOXINAK ISURTZEN DITUZTE, HALA ERAKUTSI DUGU HOLANDAN"

ABEL ARKENBOUT • *TOXICOWATCH*

Azken belaunaldiko erraustegiak seguruak dira ala badaukate arriskurik elikadura katea, ingurumena eta gizakiarentzat? Benetan kontrolatzen dira ala ez dioxina isuriak? Apirilaren 13an Hernanin (Gipuzkoa) izango da Abel Arkenbout toxikologoa jende aurrean azaltzen nola aurkitu dituzten agintariek aitortu gabeko dioxina isuri ezkutuak Harlingeneko erraustegian, Holandako Frisia eskualdean.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Mesedez, aurkeztu gure irakurleei nortzuk diren Abel Arkenbout eta Kirsten Bouman eta zer den ToxicoWatch fundazioa.

ToxicoWatch Gobernuz Kanpoko Erakunde bat da ikertzen dituena kutsagarrien eraginak ingurumenean, animalietan eta pertsonengan. Ikerketa toxikologia zientzian oinarrituta, elkarlanean ari gara beste espezialista, ikerlari zientifiko eta GKE-ekin.

Neu, Abel Arkenbout, Toxikologia ikasia naiz Utrechteko unibertsitatean. 70eko hamarkadan hainbat artikulu idatzi ditut PCB Bifenol Polikloratuei buruz. Zenbait batzordetan hartu dut parte, Omrin erraustegiko zuzendariarekin, gobernuarekin eta Herbehereetako Osasun Zerbitzu nazionalarekin negoziatuz erraustegiaren atal guztiez.

Kirsten Bouman 2015etik ari da ToxicoWatchentzako lanean, ikerketan eta kudeaketan. Bere espezialitatea biologia eta hezkuntza dira, Leideneko Unibertsitatean ornogabeen bioaniztasunaren alorrean. 2001etik hitzaldiak ematen ditu hainbat naturguneetako dendrologiaz –bereziki zuhaitzen eboluzioaz– eta bioaniztasunaz.

Harlingenen bertan bizi zarete, Frisian (Holandan). Aurkeztuko al diguzue laburki zuen udalerria eta bere ingurua?

Harlingen leku oso polita da Herbeheren ipar aldean, Frisia probintzian, UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatuta daukan Wadden itsasoaren bazterrean. Aspaldiko portu bat dauka Harlingenek, eta bertan, arrantzako baporeak, alokairuzko ontziak eta uharteetara joateko ferryak. Frisia nagusiki nekazaritzari lotua da eta ezaguna ur kiroletarako dauzkan aintzira ugariengatik.

Harlingeneko erraustegia 2011n hasi zen lanean baina zuek 2008rako ToxicoWatch antolatuta zeneukaten.

Ni sortua naiz Rotterdam ondoko uharte berde zoragarri batean, zeina bereganatu zuten zabaltzen ari zen industriarentzako. Gure gurasoen lurra saldu nahi izan nuenean, lurzoruko laginek azaldu zuten dioxinak eta PCBak zeuzkatela. Ahaztu gabe gobernuak behartu ninduela lurzoruaren garbiketa ordaintzera, sortutako galdera nagusia zen ea nola iritsi ziren substantzia haiek guztiak gure ustetan *osasuntsua* zen baratzeraino. Ohartu nintzen zerbait fundamentuzkoa egin beharra zegoela eta nik bezala pentsatzen zuten beste batzuekin batera sortu genuen ToxicoWatch.

Omrin erraustegia 2011ean jarri zuten martxan, urtean 230.000 tona erretzeko gaitasunez, "puntako teknologiazko" ["*in the state of the art*"] erraustegia. Jendeak erraz onartu al zuen?

Ez, bada, inolaz ere ez. Hasieratik herritarrek izugarrizko erresistentzia egin zioten, traktoreekin blokeoak, etxe gehienetako hormetan "Erraustegirik ez" dioten banderak jarriz. Alderdi politiko bat ere sortu zen helburu bakar honekin: "Erraustegirik ez". Talde hau iritsi zen udal batzaraino baina gainerako alderdi politikoek eten gabe egiten zioten kontra. Orduan erabaki zuten ToxicoWatch fundazioari deitzea dioxinen ikerketa bat egiteko erraustegiaren inguruetan.

Erraustegia abiatu eta urtera erakutsi zenuten agintariek ofizialki aitortuak baino askoz toxina gehiago isurtzen zituela. Nola izan zen hori?

2013an Harlingen inguruetako oilategi txikietako arrautzetan aurkitu genituen dioxina kontzentrazio handiegiak, CALUX bioteknologia berrizalea erabiliz. Ondoren Gobernuak egindako kontra-ikerketak gure aurkikuntzak berretsi zituen. Ondorioz, zenbait azterlan gehiago burutu ziren dioxinen iturriak identifikatzeko. Horietako garrantzizkoenetako bat izan

"Harlingenen erraustegiaren 'sukalde' barruan begiratu ahal izan dugu eta aukera hau oso gutxitan gertatu da"

ERRAUSTEGI BERRIA. Abel Arkenbout Frisiako Harlingen herriko erraustegiaren aurrean.

zen tximinietako gasen epe luzeko laginketa AMESA teknikarekin. Honek oso argi erakutsi zuen erraustegia dela dioxinen iturri nabarmen bat, batik bat itzali ostean berriro pizteko uneetan, dioxinen emisioan ordu gutxi batzuetan gaindituz 6 urte osoko emisio normalak.

Erraustegi inguruko oiloen arrautzek dioxinak dauzkatela erakutsita, nola erreakzionatu zuen jendeak?

Sekulako inpaktua egin zuen. Ez bakarrik Harlingenen, albistea Holandako telebista nazionaletako programetan ere azaldu zen. Oiloak dauzkatenek beren arrautzak senideei ematen zizkieten edo arrautza ustez ekologikoak bizilagunei saltzen, edo azoketan, baita lekuko kafetegi edo jatetxeei.

Arrautzetako dioxinak albisteetan azaldu zirenean, batzuk lur jota geratu ziren, ohartuz beren bilobak pozoitzen ari zirela arrautzokin. Bizilagunek ez dute gehiago jan nahi horietatik. Oiloen jabe batzuk damutu ziren ikerketan parte hartu izanaz eta beste batzuek berehala kendu zituzten oiloak. Baina nire ikerlanaren helburua ez zen hori izan inoiz.

Geroago agintariek eta Omrin erraustegiko arduradunek onartu zuten jarraian egitea dioxina isurketen laginketak AMESA teknikarekin...

Omrinek onartu zuen etengabeko laginketak egitea, uste zutelako honek frogatuko zuela erraustegiak arau guztiak zorrotz betetzen zituela. Lehenbiziko bi hilabeteetan AMESAk erakutsitako kopuruak bikain zeuden, baina hirugarrenean neurketek bestelako errealitate bat azaleratu zuten. Ordu gutxi batzuetan gertatutako istripu kate batek eragin zituen gehiegizko dioxina emisioak, parekatu zitezkeenak 6 urteko emisio normalekin. Alabaina, numero handi hori bera ere azpitik dago jota, arrazoi sinple honengatik: istripuak iraun zuen bitartean denbora gehienean itzalita egon ziren laginak hartzeko tresna, ToxicoWatchek "*Ezkutuko emisioak*" agirian azaldu dugunez.

Omrinek zergatik eten du AMESA bidezko jarraiko laginketa? Agintariek ezin dute derrigortu askoz errealistagoa dirudien kontrol horretara?

Neurketek erakusten dute errealitatean errausketa egiten dela idealak liratekeenetik baldintzetatik urrun, okerreko funtzionamendua ohikoa dela. Frogatu dugu ez dela errealista urtean 6 edo 12 orduko neurketak egitea, arauek derrigortzen duen gisan. Gainera, erraustegia abian jartzen den aldi orotan gertatzen dira dioxina isuri gehiegizkoak. AMESA neurketak 2017an eten zituzten, berriro emisio oso handiak gertatu zirenean. Jendeak eta baita gobernuak ere nahi dute neurketa horiek jarraitzea, baina erraustegiak uko egiten dio.

Harlingenen erakutsi duzuena Euskal Herrian berdin gertatzen dela diote OEIT-GEISeko medikuek eta Errausketaren Aurkako Mugimenduak. Europa osoan dago zabaldua arazo hori?

Uste dut Harlingenen gertatzen den gauza berdina gertatzen dela mundu osoan. Guk erraustegiaren "sukalde" barruan begiratu ahal izan dugu eta aukera hau oso gutxitan gertatu da. Ondorioz, gaur badakigu Eskueran diren Teknika Hoberenak [*Best Available Techniques*] erabilita ere oso zaila dela hondakinak zuzen erraustea nahi gabe dioxinak bezalako substantzia toxiko iraunkorrak sortu gabe.

Garbi esateko, ez dugu ezagutzen zer nolako eraginkortasuna lortzen duen erraustegi batek konbustio-ondorengo gunean 1.100 gradutan ari denean. Harlingeneko 'puntako teknologiazko' erraustegiaren emaitzetan oinarrituta, oso serioski galdetu behar da ea horrelako instalazioek ahalmena daukaten nahi gabeko POP Kutsagarri Organiko Iraunkorrak ezabatzeko eta horrela kunplitze-

ko Stocholmeko Itunak agintzen duena: substantzia oso toxikoak [*extreme toxic substances*] minimora eramatea.

ToxicoWatch fundazioa IPEN POPak Ezabatzeko Nazioarteko Sarearen partaide da. IPENek dio bere aurkezpenean: "Mundu mailan gero eta handiagoa da kimiko toxikoen ekoizpen eta erabilera (...). Eta herrialde gehienek oraindik ez dauzkate jendeak horien isurietatik babesteko nahiko lege eta derrigortze mekanismoak". Holandan eta Europan ere ez?
Gobernuaren arauek ez daukate beti ahalmenik industria behartzeko gai arriskutsuak mugatu edo murriztera. Errealitatean, legeak ez dira betetzen edo industriaren abokatuek aurkitzen dituzte saihesbideak. Horren adibideak dira erraustegietako konbustio-ondorengo gunearen tenperaturak edo dioxinen mailak urratu ahal izatea itzali ondoren berriro abiarazteko uneetan. Konbustioan zaborrik ez errez gero, arauak aplikatu beharrik ez daukatela diote erraustegien jabeek. Baina abiarazteko faseetan emisioak askogatik gainditzen dituzte ohiko funtzionamendukoak. Dudarik gabe, emisio arriskutsu guztiak hartu behar dira kontutan.

Frisia eta Holandako prentsatik ulertu ahal izan dugunez, Harlingenen eztabaida bero dago uneotan: herrialdeak errausteko kapazitate handiegia daukala, erretzera atzerritik ekarri behar dutela zaborra, eztabaidatzen da lanpostuez eta alternatibez, kontrolak zorroztearen edo Omrin ixtearen kosteez...
Bai, eztabaida dago uneotan erraustegiaz. Azken asteotan ixtea bera ere aukeratzat aipatu da. Nire ustean erraustegiek akats gehiegi dauzkate. 2011n hasi zenetik Omrin 70 aldiz baino gehiagotan itzali dute eta berriro abiarazi. Eta hori gehiegi da. Urtean behin bakarrik daukate baimenduta itzali eta berrabiaraztea. Herbehereak zaborra inportatzen ari dira, Omrinekoek ez dutela egiten esan arren. 23 udalerri daude finantza interesez inplikatuta hondakin plantan. Itxiera 200 milioi eurotik gora kostako litzatekeela kalkulatu da. Baina zein izango da eragina ingurumenean edo jendearen osasunean erraustegia ixten ez badute?

LEEUWARDER COURANT

DIOXINAK OILATEGI TXIKIETAN. Jappie Kuperusek dio kazetariari: "Akabo arrautzak jatea!".

Apirilaren 13an Hernanin mintzatuko zara. Zein izango da zure mezua erraustegietatik hurbil bizi diren jendeentzako eta oro har guztientzako?
Hondakinena arazo handietakoa da mundu osoan. Errausketa ez da soluzioa. Aldiz, bide alternatibo bat ari dira garatzen, Zero Zabor eredua. Ekonomikoa da beste arazo handia. Errausketa bezalako hondakin kudeaketa batek diru asko sortzen du jende kopuru txiki batentzako. Nire gomendioa da gobernuarekin lan egitea ahalik eta ikerketa objektiboenak bideratu ahal izateko.

Neurketak jarraian egitea, markagailu biologikoekin lan egitea, beharbada giza odolarekin... eta konbentzitu behar duzue gobernua erraustegia irteerarik gabeko bidea dela. ToxicoWatchen ikerketek erakutsi dute erraustegi moderno batek ere sortzen dituela izugarri toxikoak diren kutsagarri iraunkorrak, bat ere produzitu ezin dituenak. Gure planeta bakar hau babestu behar dugu. ●

Ø200

SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIKOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA

Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Orexa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

---

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20
Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com

Onintza Enbeita

PLAZANDREA

“BETI EGON GARA BERTSO MUNDUAZ GAUZA ONAK ESATEN, LOTSATU GARA TXARRAK KONTATZEAZ”

Onintza Enbeita ibilia da, besteak beste, bertsotan, idatzizko prentsan, telebistan, politikan eta baratzean. Berari galdetuta, ordea, jardun bat nabarmendu du besteen gainetik: batez ere “bertsolari” sentitzen dela esan digu, eta gehitu du “emakume bertsolaria” dela. Zergatik hala zehaztu? Bada “mundu binario honetan emakume izateak baldintzatu duelako nire bertsolaritza eta seguru asko egin dudan guztia”.

TESTUA I **DANELE SARRIUGARTE MOCHALES**
ARGAZKIAK I **DANI BLANCO**

Gauza bat aitortuko dizut: aspalditik egin nahi nizun elkarrizketa. 2016ko abendutik, hain justu ere. Espainiako Diputatuen Kongresuan egon zinen lau urtez, EH Bildu alderdiaren ordezkari gisa, eta bertan izandako esperientziaz hitz egin zenuen Feministaldia jaialdian. Horretaz galdetu nahi dizut lehenik eta behin, eta hasieratik hasi nahi nuke.

Nola iritsi zinen Madrilera?

Beti izan naiz ezker abertzaleko militantea, eta zalantza eta kontraesan asko neuzkan arren, ea Madrilera joan behar genuen ala ez, egoera sortu zenean, joan egin nintzen. Dimisio baten ondorioz suertatu zen hura, eta ni, 32 urteko emakume gazte bat, hara joan nintzen 50 eta piko urteko gizon heldu bat ordezkatzera. Lehen bizpahiru hilabeteetan mezu garbi bat iritsi zitzaidan gizartearen partetik: ez pentsatu edonor ordezkatuko duzunik. Eta hor hasi nintzen kontzientzia hartzen denari buruz, eta hasi zitzaidan sumendi oso bat lehertzen.

Jarraitu egin zenuen, hala ere.

Inkontzientzia absolutuz heldu nintzen Madrilera, eta gustatzen zait inkontzientziaz eta kontzientziaz berba egitea, zeren, jakin barik egiten dituzunean gauzak, jakin barik sartzen zarenean otsoaren kobazulora, inkontzientzia da, baina otsoa han dagoela jakinda sartzen zarenean, ausardia da. Plazetan ere hala hasi ginen, inkontzienteki, eta kontzientzia hartu genuenean ere jarraitu genuenez, hor bihurtu ginen ausart. Politikan berdin. Kongresuko lehenengo lau hilabeteetan beldur handia pasa eta konplexu asko izan ostean, ariketa bat egin nuen ahalduntzeko, eta diskurtso propio bat garatzeko, eta aguantatu nuen hiru urte eta erdi. Gero kanpaina politiko bat egiteko baietz esan nuen. Hor ere ausarta izan nintzela uste dut.

Nola deskribatuko zenuke kongresua eta, oro har, politika?

Iruditu zitzaidan politika kristoren oihana dela. Oihan horretan presidentea ez da agintzen duen bakarra, hori da nire desilusiorik handiena. Kongresutik kanpo, Eusko Jaurlaritzako parlamentutik kanpo, atsekabetzekoa da zenbat botere faktiko dauden, guk ez ditugunak bozkatu eta gure gainetik erabakiak hartzen

dituztenak. Bestalde, fribolitatea izugarria da. Oso samingarria da jakitea aurrekontuak onartu direla ez dakit nork erabaki duelako ez dakit zer konpetentzia komeni zaigula, konpetentzien estatutu hori lege organikoa denean eta aspalditik beteta egon behar lukeenean. Oso mingarria da, zeren gure egunerokotasunarekin jolasten dute. Kongresuan ez dago benetan hain haserre handirik, ez hain diferentzia handirik, zeren gero kafetegian denak oso lagunak dira.

Nola eraman zenuen hori?
Niretzat oso gogorra zen, mikrofonora irten eta mundu guztiak gainera salto egitea, iraintzea, txistu jotzea, eta ondoren kafetegira joan eta denek ezer pasako ez balitz bezala egitea. Ezin nuen eraman. Jende horrek gure bizitza izorratzen du eta gainera iraindu egiten gaituzte gauza logikoak proposatzera gatozenean, eta gero pentsatzen dute gainera beren lagunak izango garela kafetegian? Ez zait interesatzen, ni hara ez nintzen joan lagunak egitera. Jarrera hori hartzea izan zen ahalduntze prozesu bat: ni ez naiz hona etorri lagunak egitera, etxera bueltatuko naiz lehen neuzkan lagun berekin, baina behintzat esango dizuet hau eta hau, esango dizuet zuek torturatu egin duzuela, zuek lortu duzuela jende pila bat errepideetan hiltzea, zuek lortu duzuela jende pila bat gosez hiltzea, hilabete amaiera ez heltzea…

Momentu ederrak eskaini zenizkigun.
Gauza on asko gertatu ziren, noski, bizitzan dena ez da tragedia. Niretzat badago detaile bat oso polita eta asko laburbiltzen du gure hango esperientzia. "*En mi coño y en mi moño mando yo*" famatu haren hurrengo egunean, nire bulegoan nengoen lasai-lasai. Garbitzaileak egunero pasatzen ziren handik papera eta plastikoa batzera eta bazegoen emakume heldu bat, 60 urte ingurukoa, egun hartan sartu zen nire bulegora, isil-isilik zarratu zuen atea barrutik eta esan zidan sekulako obarioak nituela, ederra egin nuela aurreko egunean eta musuak-eta eman zizkidan. Orduantxe pentsatu nuen: begira, akaso hemen ez dugu ezer lortuko, hemen gehiengo osoa dauka PPk, baina honek balio dit, 60 urteko emakumea hemen garbitzen ari da, dagoen klasismoarekin, katearen azkenengo begia izango da kongresuan. Bada, atzokoak berari eman badio indarra kalera irteteko eta beste gauza batzuetarako, eta bera eta ni gauza askotan borroka berean egongo garela sentitzeko, pozik geratzen naiz.

Artean Madrilen zinela, hurrengo legegintzaldiko hauteskunde-kanpainan parte hartu zenuen, senaturako hautagai.
Kanpaina horretan emakume bi jarri gintuzten zerrendaburu Bizkaian, bai senaturako bai kongresurako. Hori ez genuen guk erabaki, hori erabaki zuten militanteek, hori erabaki zen herri batzarretan eta hori erabaki zuen EH Bilduk. Baina gero erabaki hori ez zen hartu behar zen segurtasunarekin, harreman asko joan ziren apurtzen, eta husten joan zen dena, etxera etorri arte. Uste dut apustuak egin eta apustuei eusten ez dela asmatzen herri honetan, batez ere emakumeen kasuan. Diskurtso ofizialetik zerbait desberdina usaintzen bada mehatxutzat hartzen da, eta hori uste dut akats handia dela, eta lan asko daukagula egiteko. Momentu honetan badakit ez nintzatekeela Madrilera bueltatuko, baina nik segitzen dut lehen bozkatzen nuen alderdia bozkatzen eta segitzen dut nire herrian parte hartzen gauza askotan.

> ***Otsoaren kobazulora jakin barik sartzea inkontzientzia da, otsoa han dagoela jakinda sartzea ausardia***

Feministaldiko hitzaldi hartan aipatu zenuen beste kontu bat: komunikabideen tratamendua eta gutxiespena.
Madrilgo lau urteetan egindako elkarrizketak errepasatu eta gauza askorekin konturatzen nintzen. Adibidez, ez zait oso normala iruditzen zenbat aldiz erantzun behar izan nuen ea Rocío Juradoren fana nintzen. Nik zer musika entzuten dudan, edukiko du norbaitek kuriositatea horretaz, baina Madrilen eskumak dauka gehiengo osoa, han gaude alderdi bateko zazpi euskal herritar, beste alderdi bateko beste bost, saiatzen gara diskurtso batzuk lantzen, mozioak egiten, Euskal Herriko errealitatea mahai gainean jartzen, eta zuri ardura dizun bakarra da ea nik Rocío Jurado entzuten dudan ala ez? Iruditzen zait momentu konkretu batean errespetu falta bat, eta hori ez da gertatzen gizonezko abokatu edo ingeniariak sartzen direnean politikan. Uste dut nire kasuan faktore asko

egon zirela: ni nintzen emakume gazte bat, eta nintzen bertsolaria. Hor ikusten da euskal kultura zer gutxietsia dagoen, –gure komunikabideak tartean–, zer konplexu dagoen gure kulturarekiko.

Gatozen orain bertsolaritzara. Hilabete eskas da *Kontrako eztarritik* liburua argitaratu zela. Uxue Alberdik sinatu du lana, baina lan kolektiboa da hein batean, hamabost emakume bertsolariren testigantzak bildu baititu; tartean, zeurea. Emakume gisa irakurria izateak plazetan nola eragin dizuen eta nolako zapalkuntzak bizi izan dituzuen kontatu duzue. Ez da irakurraldi samurra.
Zuk hartzen duzu liburua eta atsekabetzekoa da. Nik neuk jartzen ditut ilaran 24 urtetan gertatu zaizkidan gauza "txarrak", eta esaten dut: "Nik zelan ez dut hemendik arineketan eskapatu? Nik zelan aguantatu dut hau dena?". Bertsolaritzak badauka onetik, jakina. Orain arte beti egon gara gauza onak esaten, ze-

ren lotsatu egin gara txarrak kontatzeaz. Baina andreak plazara irten garenean eta bertsoaren gozamena ukitu dugunean, ederto sufriarazi digute. Ni prest nago liburuaren orri hau pasatzeko, sufrimendua pasatzeko, baina, lehenengo, kontatuko dugu zer gertatu den, ezin dugu egin ezer gertatu ez balitz bezala.

Zergatik?
Zergatik nahi ditugu altxamendu militarraren osteko gorpuak lurpetik atera? Familiak lasaitzeko bakarrik? Ez. Egin behar da ariketa kolektibo bat eta argitu behar da zer gertatu zen, nork egin zuen eta zergatik. Bada, hau berdina da. Hemendik aurrera dena ondo joatea nahi badugu, jakin egin behar dugu denok zer gertatu den orain arte. Nik ez dut kontatu dudana kontatu jendeak pentsa dezan, "gaixoa Onintza, zenbat sufritu duen". Konklusio horrek ez dit balio. Nik kontatu dut kontatu dudana gauza bategatik bakarrik: identifikatzeko zapalkuntza horiek, ikusteko denon bizitzetan egon direla, eta neskei eta emakumeei adierazteko gauza horiek ez zaizkizula gertatzen tuntuna zarelako, ez besteak baino zatarragoa zarelako, ez ederragoa zarelako, ez argalagoa zarelako, ez lodiagoa zarelako, baizik eta gizarte matxistan bizi garelako, patriarkatuak agintzen duelako...

Emakume bertsolari batzuek adierazi dute haiek ez direla hala sentitu.
Oso ondo iruditzen zait. Nik ez diot inori inposatuko nire esperientzia, baina inork ez dit ukatuko nirea.

Izen-abizenez sinatu dituzue testigantzak, baina ez duzue hatzaz inor seinalatu.
Niri ez dit ardura batek edo besteak esan edo egin duen, edo sentiarazi nauen. Azkenean, zer gertatu da? Bada, pribilegio egoeran dagoen klase batek, gizonen klaseak, gure gainetik dagoela pentsatu duela momentu batean, inkontzienteki edo kontzienteki, eta horren ondorioz eduki dutela jokatzeko modu bat. Berdin dit

Onintza Enbeita Maguregi

1979, MUXIKA

Bertsolaria, Bizkaiko egungo txapelduna. Formazioz kazetaria da, eta jardun horretan ibili da, besteak beste, *Euskaldunon Egunkaria*-n. Telebistan ere egin du lan. Gaur egun, *Gure doinuak* izeneko saioa aurkezten du. Agroekologiako ikasketak egin ditu. Zutabea idazten du egunero *Berria* egunkarian. 2012tik 2016ra bitarte diputatu aritu zen Espainiako Gorteetan, EH Bildu alderdiaren eskutik.

nor izan den, aita, aitaita, lehengusua edo osaba, zeren haietako edozein izan daiteke, eta nik uste dut beharrezkoa zela ariketa hori egitea.

Orduan pozik zaude liburuaren emaitzarekin?
Bai, oso ariketa ona izan dela uste dut. Batetik, beldurra galdu dugu sentitu dugun dena esateko, eta beste alde batetik, ikusten dut gaur egun 16-17-18 urterekin neska batek salto egiten duenean plazara, ideologikoki ez dagoela ni nengoen lekuan, askoz aurrerago baizik.

Honetan guztian, Bizkaiko txapela irabazi duzu. Zorionak.
Eskerrik asko.

Txapela, eta makila. Zer izan da zuretzat?
Espero ez nuen momentu batean etorri da. Pentsatzen nuen nire azken txapelketa izango zela. Azaroaren 1etik abenduaren 15era arte ariketa mental bat egin nuen, eta nire buruari esan nion: 2019an 40 urte egin behar ditut, 18 urtetatik parte hartu dut txapelketan, nahikoa da. Bizkaiko txapela ez du andre batek inoiz irabazi, baina etorriko da Nerea [Ibarzabal], etorriko da Miren [Amuriza], etorriko da Jone [Uria], edo etorriko da beste bat, eta irabaziko du, eta ni egongo naiz publikoan haiek babesteko, eta ez da ezer pasatuko. Eta halako batean ikusi nuen txapela nire buruan. Poza sentitu nuen, pentsatu nuen: lortu dugu, Bizkaian ere andre baten eskuetan dago makila, eta sinbolikoki hegemonia hori andre guztien eskuetara pasatzen da. Ez da bakarrik azkenengo lau finaletan lau andre heldu garela finalera; ez, gainera, irabazteko kapaz gara. Honaino heldu gara eta merezi dugun lekuan gaude. Sentsazio hori izugarria da.

Hain justu ere, txapela irabazi eta biharamunean azpimarratu zenuen hura garaipen kolektiboa zela. Askok salatzen dute, ordea, badagoela halako joera bat emakume denak zaku berean sartzeko. Zer uste duzu horretaz?
Nik irabazi dut txapela, jakina. Meritua norberarena da, norberak sartu ditu orduak eta norberak eduki du egun ona edo kontzentrazio egokia, horren dudarik ez dago. Beste gauza bat ere esan nahi dut: elkarrizketetan esaten dugu txapela dela norbere ibilbide osoaren emaitza, saria, bada ez, zeren txapela arratsalde batean irabazten da, edo galtzen da. Txapela hori da azkenean. Eta txapela nik irabazi nuen ondo egin nuelako bertsotan abenduaren 15ean, eta ez dauka beste bueltarik. Jakina, bertsotan hasten garenean, gizonak diren moduan beren buruen ordezkari, gu ere gara gure buruaren ordezkari, duda barik, eta hori aldarrikatu behar da eta azpimarratu behar da, eta horrela izan behar du: ez gara zaku homogeneo bat, gara banakako oso heterogeneoak, oso anitzak. Baina uste dut borroka kolektibo bat egin dugula plazan egoteko eta zilegitasuna lortzeko, uste dut bide bat urratu dugula, eta nik ez ditut ahaztu nahi bide hori urratu dutenak. Adibidez,1986ko Euskal Herriko txapelketan Kristina Mardaras aurkeztu ez balitz, beharbada Maialen [Lujanbio] edo Iratxe [Ibarra] edo ez dakit nor izango zen Euskal Herriko txapelketara joan zen lehenengo emakumea, hortik hamabost urtera, eta orduan bidea askoz ere atzerago edukiko genuen gure prozesu honetan. Bide hori aldarrikatzen dut, ez denak zaku berean egotea. ●

Plastikoaren arrasto ikusezina

IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

Martxoaren erdialdean, Grande America kargaontzia hondoratu zen euskal kostaldetik hurbil. Lehen berriek, gure ingurunea fuel orbanaz salbu izango zela zioten arren, Hendaiako hondartzan petrolioz bustitako hegazti bat atzeman izanak, kaltearen dimentsioa handiagoa izan zitekeen alerta piztu zuen.

Halako gertakariak ez zaizkigu arrotzak, tamalez. Itsasoan sortutako istripuen ondorioak ikusi eta pairatu izan ditugu azken urteotan. Nola ahaztu Prestigeren hondamendia eta plastilina itxurako haritxoekin egindako konparaketa penagarri hura! Hala ere, Europako Ingumen Agentziaren arabera, itsasoan metatutako zaborraren %20 besterik ez omen da itsasoko jardueretatik sortua, gainerako %80 ibaietatik datorrela diote datuek. Are gehiago, dirudienez, itsas zaborraren %80 plastikoek osatzen dutela estimatu da. Polimeroz osatutako uharteak diruditen eta zazpigarren kontinentea deitu izan zaion Indiako Ozeanoko irudiek oihartzun handia izan dute mundu mailan; gurean ere, Zumaia inguruko flyschetan pilatutako hondakinak erakusten zituen bideoa ere biral bilakatu zen.

Pixkanaka zabalduz doa gai honekiko kontzientzia, eta hainbat ekimen daude begiz hautemangarria den zaborra biltzeko. Haatik, bada begietara ikusezina den mikroplastiko edo nanoplastikoa deituriko zaborra ere. Hasiera batean, plastiko zatiak txikituz zihoazen heinean, plastikoa deuseztatu eta ingurumenak xurgatzen zuen ustea nagusitu zen; baina denborak, uste okerrean geundela erakutsi du: hondakin horiek zuntz mikroskopikoak izatera igarotzen dira.

> Ekoizle eta erakunde publikoek gaiaz har dezaketen jarreraz gain, bada kontsumitzaileon ohituretan dagoen beste eremu bat ere, norberarena, pertsonala

Horrek guztiak ondorioak ekar ditzake egoera konpontzeko neurririk hartu ezean. Estimaziorik latzenek diotenez, 2050. urterako itsas bizidunen gehiengoak plastikoa irentsita izango du. Saihestezina izango da, beraz, giza osasunean kalteak eragitea. Oraingoz, airean, gatzean, ur-kaniletan eta giza gorotzean ere aurkitu dira plastiko zantzuak.

Zinez konplexua da egoera, eta baita konponbide posibleak ere. Ezin ahantzi alde batetik, plastikoaren lobby indartsua. Zuzenean edo zeharka, petrolio sektoreari loturik dago, eta jakina da, munduko petroleo erreserben %90 baino gehiago hamasei lurralderen eskuetan dagoela. Gainera, 1980tik gaur egun arte, %500 igo da plastikoaren ekoizpena, eta ez dut uste ekoizleek atzera pausoa emateko desira izango dutenik. Beste aldetik, plastikoaren ekoizpen eta kontsumoa murriztu nahi duten erregulazio, debeku eta zigorrak datozkigu erakundeetatik. Plastikozko poltsen erabilera jaisteko kopuruaren neurria martxan dugu dagoeneko, eta datozen urteetarako, erabilpen bakarra duten plastikozko produktuen gutxitzea eragingo duten debekuak aurreikusten dira Europatik.

Ekoizle eta erakunde publikoek gaiaz har dezaketen jarreraz gain, bada kontsumitzaileon ohituretan dagoen beste eremu bat ere, norberarena, pertsonala. Oro har, erlojupeko bizitza erritmoa dugu egunerokotasunean, eta kontsumo kontziente bat egiteak denbora eskatzen du. Azken batean, bizitzaren oinarrizko beharrizanak erdigunean jartzea suposatzen du, horiei denbora eskaintzea, arduraz kontsumitzea, eta ingurumenarekiko begirada izatea, alegia. Zaborrik onena, sortzen ez dena omen da.

Ziurrenik ere, Grande America itsasontziaren arrasto ilunak ikusi ahal izango ditugu gure kostetan datozen hilabete hauetan, eta egoerak ezinegona eta alarma sortuko du. Baina ez dezagun ahaztu isilean lanean ari den hondakin ikusezina. Guk sortutako zaborrak jango gaituela entzun izan dut maiz, baina ez al dugu guk bera irentsiko? ●

Pederastez eta bestelako piztiez



ANTTON OLARIAGA

SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR

Leaving Neverland dokumentala. Biktima bi. Lau orduz euren ahotik pederastiaren mekanismo konplexuak ulertzeko parada. Kraskatutako gizon heldu bi. Berba bakoitzean orduko umeak azalarazten dira. Pederastiaren itzal luzea.

Pederastak piztiak dira, bai, baina ez dira munstroak. Kalkulatzaileak dira. Badakite zein diren ume babesgabeenak, badakite zelan egin neska-mutikoen eta familien konfiantza apurka irabazteko eta, zeregin horretan, denbora luzea emateko prest daude. Indarkeriaz baino, botere erabilpen "samurragoek" emaitza hobeak izaten dituztela jakitun dira. Horrexegatik izaten dira pertsona atseginak, azken batez, lotura emozionala bitarteko nagusia baitaukate.

Lehengo egunean, epaitua izaten ari den pederasta batek adikzioaren aitzakiapean desenkusatu nahi zuen bere burua. *Serial killerrek* azaltzen duten hilketarako adikzioa ekarri zidan gogora. Psikopata guztiak telesailetakoen antzekoak direla uste ohi da. Baina jende gehienak ezaugarri psikopatikoak badauzka. Psikopatia ez delako buru gaixotasuna, enpatia falta absolutua baino.

Eta enpatia falta hori ikus liteke hainbat pederastek emandako arrazoietan: nik adikzio bat daukat, nik ezin dut kontrolatu, hortaz, neu naiz biktima. Benetako biktimak ez dira niretzat pertsonak, neure asebetetzerako erabili ditudan gauzak baino, kokaina edo jokoa erabiltzen duenaren antzera. Ni, ni, ni...

Bestetik, eraso sexualen helburua ez da sexua bere horretan. Sexua bitartekoa da, autosatisfakzio maltzurrago bat lortzearren: beste baten menderakuntza. Gozamen sexuala ez da azken batez bilatzen dena, baizik eta beste pertsona bat menperatzeak ematen duen gozamena, serieko hiltzaileek beste pertsona baten bizitza beren esku artean edukita gozatzen duten bezala.

Eta helburua hori bada, egiteko arrazoia, egin ahal dutela baino ez. Pederastek ahalmen hori daukaten bitartean, boterea erabiltzeari ekingo diote: biktima anitz eta askotarikoak izan daitezke, eskoletan gertatzen den bezala –mutilen kasuetan, gehienbat–, edo biktima bakarra behin eta berriro erasotua, etxe ingurugiroan izaten den legez –nesketan kasu ohikoena–.

Ahalmen horrek mugapenik ez daukanean eta, areago, babestua izaten denean, izurrite bihurtzen da, eliza katolikoan gertatu den bezala. Apezpikuak bildu berri ditu Bergogliok pederastiari aurre egiteko. Azeriak, oilo zain.

Eta, inoren sinesmenak alde batera utzita, denok sinetsi behar baitugu zerbaitetan bizitzari zentzua ematearren, erregu bat egin behar dut: mota guztietako abusuetan oinarrituta hazi den estamentuaren esku umeak utzi baino lehen, gogoratu, mesedez, aita santuaren gainetik, zeuek zaretela aitak eta, ama birjinaz gaindi, zeuek zaretela amak.

Save the Children-en arabera, munduko txoko honetan baliteke populazioaren %20k abusuak pairatu izana. Ez da harritzekoa, kasuen %85 ez ei delako salatzen. Emakumeon kontrako erasoak osasun publikoko afera diren bezala, pederastia ere osasun publikoko kontua da. Eta are larriagoa, umeek aurre egiteko bitartekorik oraindik ez baitaukate. Osasun arazoa da, ez erasotzaileak gaixorik daudelako, baizik eta jendarte gaixotua sorrarazten dutelako belaunaldiz belaunaldi.

Ez dira iraganeko gertaerak. Momentu honetan Euskal Herrian hainbat ume abusatuak izaten ari dira. Eta ez du axola noiz irakurtzen duzun hau. Hainbat pertsona barrutik kraskatzen ari dira, zeintzuk eta ume horiek babestu beharko lituzketen berberak. ●

Zuriketa moreari talka

HAIZEA NUÑEZ
ABOKATUA

2018ko otsailaren 2an kazkabarra gogor jotzen ari zen Donostiako kaleetan. Euskal Herriko Mugimendu Feministak martxoaren 8ko greba feministaren deialdia egiteko agerraldi publikoa abian. Garai bateko Tabakalerako zigarrogileen borrokari aitortza zen hura: dozenaka emakumek*, hedabideak lekuko, espazio publikoa okupatu genuen eta, berehala, algara oztopatzeko nahian, kultura garaikideen nazioarteko zentroko segurtasunekoak eta arduradun batzuk hurbildu ziren baimenik gabeko plaza hartze hura onartezina zelakoan. Ez zuten lortu, ordea, indar kolektibo hori gelditzen, ezta ahots propioarekin esateko genuena isiltzen ere. Gure genealogia feministen leku estrategiko batetik, autoestimu kolektiborako ekintza gozagarrian, zaintza lanetan, enpleguan, ikasle eremuan zein kontsumoan greba egingo genuela adierazi genuen. Iaz, planto eta historia egin genuen.

2019ko urtarrilaren 16an negua udaberritu zitzaigun eta, kontraesanak kontraesan, Gasteizko Talka gune feministaren atarian eguzkiak elurrari aurrea hartuta ziola elkarri besarkatuta ospatu genuen. Hitzez hitz, heteropatriarkatu kapitalistari planto egingo geniola publikoki aipatzera gindoazen eta zapaltzen gaituen sistematik etekina ateratzen jarraitu nahi dutenak orduantxe ageri ziren. Prentsakoak bertaratu aitzin, Gasteizko Udaltzainaren konplizitatearekin, Iberdrolak argindarra moztu zion emakume*, bollera eta transen konplizitateak bi hilabete lehenago eta erabilera komunitariorako askatutako espazio feministari.

Geroztik eta greba feminista egunera arte, puntu more gehien lortzeko norgehiagoka aritu dira ordezkari politiko eta patronalekoak. Pribilegioekin amaitzeko eta zapalkuntza guztietatik askatzeko bidea jorratzeko egin ditugun exijentzia politiko, sozial eta ekonomikoei erantzun gabe, intimitatean gure programari muzin eginez eta errepresio dosiak selektiboki aginduz: talkaren desalojoa, atxiloketak, borra kolpeak, portaletan sartzeak eta hirurogei identifikaziotik gora.

Aurten hogeita zortzi neurri lortzeko helburuarekin egin genuen greba feminista. Feministok badakigu nondik gatozen eta nora goazen. Datozen hilabeteetan gure papera jokatzera ausartuko gara: zuriketa moreari talkaz, bizitzak erdigunean jartzeko baldintza materialak erdietsiz, eskuinaren oldarraldiaren aurrean autodefentsa feminista antolatuz, behetik gorako herri eraikuntzaz, eta, aurreko guztia egiten ez badugu alperrik izango dela jakinda, arduraz bozkatuz. ●

Insomnioaz

CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA

Gauza jakina da: insomnioduna naiz, eta aholku guztien kontra, sakelako telefonoa izaten dut mesanotxean. Alberto Pradilla eta Elizabeth Macklinen desorduetako –niretako, ez haiendako– postekin ez banaiz lokartzen, bada TL bat hutsezina dela: Jon Iñarriturena. Izugarria da bere etorria eta izugarria –oraingoan literalki– gizon honek sorrarazten dituen maitasun, miresmen, desira eta sedukzio mezuak, ezkonduta ote dagoen galdetzeraino –eta berak erantzun, hori ere esan beharra dago–. Pello Urzelaik beti esan ohi du hauteskundeak ez direla Twitter bidez irabazten, eta nago arrazoi duela horretan. Hauteskunde egunerako berdin jarrituz gero, ordurako aise izango ditu milaka jarraitzaile gehiago, baina susmoa daukat proportzioan askoz gehiago direla jarraitzaile katalanak –edo estatukoak, nahi baduzu–. Eta, horiek ez diote bozik emanen. Ez dut ukatuko bizkaitarren dotorezia eta erakargarritasuna; areago, bat egiten dut hein handi batean, baina arriskua ikusten diot horrelako soslaia dutenei: gehiago daudela Euskal Herritik kanpokoari adi, eta berdin gisan, hangoak direla jarraitzen dutenak. ●

Enpresa kultura... zaharra

IVÁN GIMÉNEZ
KAZETARIA

Antonio García Fernández lan harremanen modernizazioaren aitzindaria izan zen. 1957an, Jotsa enpresa eraikitzailea sortu zuen Madrilen. Frankismoaren babes osoarekin, langileentzako auzo asko eraiki zituen, hirigintza traketsa eta baldintza txarrak baliatuz. Baina, Antonio jatorra eta enplegatuen gertukoa omen zen: "Ez dut inoiz inor kaleratu, eta inor ez da inoiz nire enpresatik beste batera joan, eskaintza hobe baten bila", azpimarratzen zuen aukera zeukan bakoitzean. "Familia-enpresa gara, 1.000 lankideren familia; gurea odola-loturatik harago doa; kapitala eta lana uztartzen ditugu Espainiaren zerbitzura".

Bere enplegatuentzako jaiak antolatzen zituen eta "denok gara enpresa" leloa asmatu omen zuen. Opus Deiren supernumerarioa zenez, erakunde horren oinarriak praktikan jartzen zituen, frankismoari geruza xumea eta adeitsua emanez. Ez da harritzekoa, beraz, Lan Merituen Urrezko Domina Francoren eskutik jaso izana. Agian, ez du garrantzia handirik, baina Antonio Garciak Jotsa sortu zuen bere aitaginarrebari esker, Juan Obregón Toledo. Bere bazkide kapitalista zen, eta bide batez, urteen poderioz Ana Obregón ospetsuaren aitona ere bihurtuko zena.

> Adegik gaur saltzen duen enpresaren kontzeptu berria ("proiektu partekatu bat"), 60ko hamarkadako Opus Deik "lokarri organiko batek lotutako kausa komunen aldeko gizonen taldea" deitzen zuen

Ikusi dugunez, Adegik gaur saltzen duen enpresaren kontzeptu berria ("proiektu partekatu bat"), 60ko hamarkadako Opus Deik "lokarri organiko batek lotutako kausa komunen aldeko gizonen taldea" deitzen zuen. 1967an Francok emandako Urrezko Dominaren oinordeko enpresariak gugandik oso gertu daude. Formula bera saldu nahi digute, gaur egungo *power pointak*, kolorezko grafikoak eta txosten dotoreak erabiliz, frankismoaren zuri-beltzezko NO-DOaren ordez.

Euskal patronalek "hirugarren bidea" ere deitzen diote: ez dago ugazabarik, ez langilerik. Ez, beraz, interes ezberdinik ere. Denok txalupa berean arraunean, denok norabide berean. "Enpresaren eta langileen harremanak zuzena izan behar du", eta gutxi batzuen helburua (etekinak handitzea) denon xedea bihurtu behar da, "proiektu partekatu batean, lan harremanen blokeoa gainditurz".

Hain zuzen ere, eta beste adibideen artean, hor dago Sidenor (Azpeitia) enpresan gertatutakoa: kaleratze eta erregulazio-espedienteak erabilita, jabeek "kultura berria" abian jarri dute, langileen ordezkaritza saihestu nahian. Obregonen aurretiko opustarrak bezainbeste meritu egin dutenez, eta 1967an Francok egin zuen antzera, aurten Adegi patronalak Enpresa Kultura Berria saria eman dio Sidenorri. Baina sasikultura hori oso zaharra da. Ana Obregonen aitona baino zaharragoa. Orain esplotazioari kolaborazioa deitzen diote. Kolorez, hori bai. ●

ATXEGA JAUREGIA
jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

SEI BIZITZA TESTIGANTZA
HARREMAN SEXU-AFEKTIBO ASKEAGOAK HELBURU

Azken boladan dezente zabaldu den kontzeptua da polimaitasuna. Kontua ez da gehiagotan eta pertsona gehiagorekin txortan egitea, kontua pertsonen arteko harreman osasuntsuagoak, askatzaileagoak, gozagarriagoak, komunitarioagoak eraikitzea da. Ez soilik sexua eta maitasuna konpartitzen dutenen artean, baizik eta pertsona guztiekin eta ingurunearekin oro har.

TESTUA I **Z. OLEAGA**
ARGAZKIAK I **DANI BLANCO**

Orduan, zergatik mugatu erreportajea harreman "sexu-afektiboetara" eta ez hitz egin "harremanez" edo "jendarte ereduaz" oro har? Zergatik ez hartu baita ere mintzagai, esaterako, lagunen arteko maitasun harreman asexuatuak? Ziurrenik, muga itxuraz objektibo horien zentzurik eza eta subjektibotasuna agerian uztea ezinbestekoa da; baina bitartean, gaur eta hemen, norbaitekin larrua eta afektibitatea konpartitzen ditugun gehienetan harremana aldatu egiten da. Baita larrutan egiteari garrantzia kendu nahi diotenen artean ere.

Solaskide ditugun sei lagunak ez dira ezeren eredu –besteren artean, eredu eza baita helburu–, baina badugu zer ikasia haien praktika, bizipen eta hausnarketetatik: badirela bestelako aukerak, pluralean. Guztiek dituzte edo izan dituzte harreman sexu-afektibo bat baino gehiago aldi berean, inplikatutako pertsona guztien ezagutza eta adostasunarekin. Oinarri komun horretatik aurrera, aniztasuna gailentzen da.

PRAKTIKA ANITZAK, ZERGATI ETA IBILBIDE EZBERDINETATIK ERAIKIAK

Mahaiaren bueltan bost pertsona batu zaizkigu eta bostei aldatu dizkiegu izenak. Sarak 30 urte ditu eta Arkaitzekin bizi da; lau urte dira bikote harremana hasi zutela. Orain urtebete pasatxo Maiterekin ere ari da harreman bat eraikitzen. Mikelek 37 urte ditu, hamasei daramatza Asierrekin bizitza partekatzen. Biek sexu harremanak dituzte beste pertsona batzuekin, sexua abiapuntu izanik lagun bihurtu direnekin barne. Estitxu da boskotean gazteena, 24 urte ditu. 18 zituenean bere bikotekideak bigarren harreman bat hasi zuen. Hasieran dibertigarria egin bazitzaion ere, "gero heldu zen unea indarrik ez nuena, eta irtetea erabaki nuen". Duela lau urte harreman berria sortu zuen, egun mantentzen duena, eta iaztik pisukide duen Eguzkirekin ere ari da. Eguzkik mende laurdena betea du, aspaldi bi harreman izan zituen aldi berean baina ez du haren oroitzapen gozorik, bidean ikasitakoa ez bada. Urtea bete da berriz ere bi pertsonekin bizi dituela harreman sexu-afektiboak, gozamen gehiagorekin. Jesus da denetan zaharrena, 56 beteak ditu. Ia 20 urtez bi maitasun harreman mantendu zituen aldi berean, orain bakarra. Tartean, sexu harremanak ere barnebiltzen dituen bestelako lagun harreman ezberdinak egon dira eta daude. Solasaldira batu ezin izan duen Elena Scarattik 47 urte ditu. Berak bai, benetako izena jartzeko eskatu digu; senarrarekin eta elkarrekin duten 17 urteko alabarekin bizi da, eta hainbat maitasun harreman izan ditu aldi berean.

Jesusek natural bizi izan du beti bere bidea: "Ez dut planteatu inoiz nola izan behar duen. 25 urte arte ez nuen maitasun harreman seriorik izan. Eta hasterakoan oso erraza egin zitzaidan, nire lehendabiziko bikotekideak bazituelako aurretik bestelako harremanak. Hortik aurrera horrela mugitu naiz". "Nik kontrakoa", erantzun du Estitxuk: "Uste dut teoria gehiegi dudala. Hasi nintzen harreman sexu-afektiboak garatzen identitate *bolleroa* onartu nuenean. Harremanak beti lagunekin edo militantzia kideekin garatu ditut, sare baten baitan".

"FAMILIAREN ESPAZIOA, SENARRA ETA ALABAREKIN PARTEKATZEN DUDANA, ZAINDU EGITEN DUGU. HOR EZ DA INOR SARTZEN", KONTATU DIGU ELENA SCARATTIK.

Eguzkik antzera azaldu du: "Harremanak garatzen dira zapalkuntza esperientzia eta proiektu politiko partekatu batetik". Scarattik sentitzen zuenetik sortu du, nahiz eta gero asko hausnartu egindakoaren inguruan. 2008an ohartu zen senarrarekin zuen maitasuna emozionala zela: "Ez nuen engainatu nahi. Asko maite nuela eta ez nuela galdu nahi esan nion. Baina zer edo zer aldatu zela nigan eta ez nuela erakarpen sexual hori sentitzen. Asko maite nuela baina ez nintzela zoriontsua soilik berarekin. Zoragarriro ulertu ninduen, eta gure harremana eraldatzea erabaki genuen". Sarak dio teoria eta praktika arteko nahasketa batetik egin duela bidea, lanketa feminista bidelagun: "Hasi nintzen harreman heterosexual batean, denbora batez monogamian. Une batean beste harreman batzuk garatzeko gogoa edo grina piztu zitzaidan. *Bollera* bat ezagutu nuen. Harekin oheratu nintzen, mutilari kontatu eta esan nion pertsona hori ezagutu nahi nuela, intimitate bat garatu". Mikelek gayen testuinguru berezia nabarmendu du: "Guk aplikazioak eta *cruising* guneak ditugu, eta hor bilatzen dena sexua da. Batzuetan, sexu harreman horietatik bestelako harremanak eraikitzen ditugu: nik bikotekiderik aspaldi ez, baina lagunak edota militantzia kideak bai. Nire bikotekideak berdin".

"Esaten dizute, 'aprobetxatu orain probatzeko', nagusitu ahala eredu monogamo eta heterosexualera bueltatu beharko bazenu bezala"

ESTITXU

Batek ere ez du eredu jakinik buruan. "Norberari balio diona, eta inorekin partekatu badezake, aurrera", dio Mikelek. "Oso ados" da Jesus, "galdetzen badidazu

nireaz, ez dut eredurik. Kontatu dezaket zer egin dudan, ez zer nahi dudan". "Errazago zait identifikatzea zer ez dudan nahi, zer nahi dudan baino. Ez dut familia nuklear tradizionalik osatu nahi", dio Sarak; "Hori, eta bidean bizitza ez uztea", Eguzkik.

ADOSTUTAKOAK ETA ADOSTU GABEKOAK

Zenbait kontu zehaztasunez eta aurretik adostu dituzte gure solaskideek, beste batzuk ez, edo bai baina egoera eta behar jakinak suertatu ahala.

Bakoitzaren bizitzan garrantzitsuak edota sakonak diren harreman sexu-afektiboen berri inplikatutako guztiek izatea zentzuzkotzat dute mahaikide denek. Horrek ez du esan nahi dena kontatu beharra dagoenik halabeharrez. Bestelako harremanak kontatzea "niretzat oinarria da", dio Eguzkik: "Nire harremanak adiskidetasunetik eraikiak dira, orduan, kontatzen badizut zer asanblada dudan bihar edo norekin hartu dudan trago bat gaur...". "Kontatzea edo ez, muga ez da hain argia", dio Mikelek: "Guk kontatzen diogu elkarri, baina testuinguru batean ematen bada; ez goaz curriculuma partekatzera, hori adostasun bat izan zen. Hurrengo astean oporretan doa eta biok dakigu zertara doan, kito". Bi maitasun harremanetatik batekin hitzartu zuen Jesusek bestelako harremanak elkarri kontatzea.

Elenak dio berea "oso espontaneoa" dela. Baina hitz egin gabeko adostasunik bada. "Familiaren espazioa –senarra eta alabarekin partekatzen duena– zaindu egiten dugu. Hor ez da inor sartzen". Ez dio senarrari bere harremanen berririk eman beharrik eta ez du egiten normalean, baina askotan jakin badakiela dio, edo noizean behin harreman horietako pertsonez galdetzen diola, "bere iritziak inporta didalako". Berak ez du galdetzen: "Ez zait interesatzen. Bera pozik badago, maite banau eta ondo tratatzen banau, zertarako?".

"Errazago zait identifikatzea zer ez dudan nahi, zer nahi dudan baino. Ez dut familia nuklear tradizionalik osatu nahi"

SARA

Espazioak eta denborak ateratzen dira hizpidera. Konpartitzen duten etxean beste inorekin larrutan ez egiteko akordioa du Jesusek, "bestea baldin badago". Sara Arkaitzekin bizi da. Maite beste herri batekoa da, eta bisitan datorkionean lagunen etxe batera jotzen dute. "Etxean edo nahi dugun tokian", dio Mikelek. Sarak eta Mikelek beste adostasun bat aipatzen dute denborei eta egoteko moduei dagokionez: elkarrekin egotean "elkarrekin gaude eta horretara". Sarari funtsezkoa zaio agenda denboraz adostu eta antolatzea, beti erraza ez dena. Ez soilik Arkaitzekin eta Maiterekin egoteko: "Argi dut ez dudala bizitza bi harreman horien inguruan soilik ardaztu nahi, lagunekin ere egon nahi dut".

Adostasunak inplikatutako pertsonen beharren arabera joan beharko lukete eraldatzen, berriak sortzen edo desagertzen. Beti ere elkarren zaintza logika batean. Sarak azaltzen du hiruren artean berriki adostu dutela Arkaitzek eta Maitek euren aldetik hitzordu bat izan dezaten saiatzea, pixka bat bada ere elkar ezagutu daitezen. Estitxuk adostasun esplizitu gutxi baino inplizitu asko ditu. Hitz egindakoen artean nagusia, "honetan elkarrekin goazela". Oinarritzat du hori ere Elenak: "Bi mundu paralelotan bizi ditut harremanak, baina errespetutik. Batean dudana sakratua da, baita bestean dudana ere".

BIZITZAREN FASE HELDUGABERAKO ABENTURA?

Monogamiaz haragoko harreman sexu-afektiboak soilik bizitzaren epe baterako al diren galdetu diegu gure solaskideei. Mahaikide denek ulertzen dute munduan egoteko modu baten gisara, politikoki eta pertsonalki beharrezkoa eta eraldaketa balio batzuei lotua.

Baina teoriatik eta desioetatik errealitaterako arrakala handia da batzuetan. Arau eta normaltasun monogamoaren barnean ez-monogamian bizitzea ez da erraza. "Adibidez, ama izan nahi badut, hori nola egiten da? Nola kudeatzen da, nork hartuko du parte? Errazena dagoena birproduzitzea da", dio Sarak. Elenaren alabak 6 urte zituen senarrak eta biek harremana eraldatzea erabaki zutenean. Alabaren bizipenez galdetu diogu, alabari berari edo gurasoei presio berezitua suposatu ote dienentz: "Arduratu gara bai, familiaren habia babestu dugu. Baina gure alaba maitasun giro batean bizi da, hori da garrantzizkoena eta toki askotan ez dagoena. Jakingo du gutxi gorabehera zein harreman mota dugun, badaki *frikiak* garela, eta uste dut bost axola

zaiola zer egiten dugun etxetik kanpo". Saiatzen direnentzat borroka pertsonal eta kolektiboa da, akigarria izan daitekeena eta beldur baten mamuak laguntzen duena une askotan: saiakerak porrot egitekotan "arau orokorra apurtzen saiatzeagatik bakarrik geratzea", Eguzkik azaldu bezala.

Jendartearen presioak gutxiespen eta infantilizazio forma hartzen du askotan. "Gurea gehiengoarentzat zoologikoaren parekoa da: 'Izan behar duzue bizitza bat', diote", azaldu du Mikelek. Jesusek antzera: "Lanean bikoteen inguruko solasaldia ateratzen denero, ni ez naiz existitzen, ez didate deus galdetzen. 56 urte ditut eta Jesusito deitzen didate, umetxoa banintz bezala".

Estitxuren aburuz, monogamiara ez mugatzeagatik eta lesbiana izateagatik jasotzen den infantilizazioa ildo beretik doaz: "Esaten dizute, 'aprobetxatu orain probatzeko', nagusitu ahala eredu monogamo eta heterosexualera bueltatu beharko bazenu bezala". Eguzkik jarrera horiek zergati bat dutela uste du: "Gure existentzia hutsak araua desnaturalizatzen du. Nik ikusi ditut lagunak nirea kontatzean eurena zalantzan jartzen".

ZAILTASUNEN GAINETIK, BIZIPOZAK

Harreman moduok ematen dizkieten pozak aletzen hasita, Elenak egiazkotasuna azpimarratu digu: "Zorionik handiena da. Ez ezkutatzea, ez engainatzea, zu zeu izan eta hori bizitzea ahalbidetzen dizun pertsona batekin egotea". Estitxuk beste hari batetik jo du: "Prozesu pertsonal oso potentea da. Piloa ikasten duzu zure buruaz". Hari-mutur horri heldu dio Sarak: "Kristoren ariketa da, sentitzen dut ez naizela pertsona bera. Sentimendu hori hiruok partekatzen dugu. Beste toki batean zaude". Toki interesgarriagoa, politikoki eraldatzailea. Eguzkik gaineratu duenez, "ez dago atzera bueltarik, nire identitatearen eta egiteko moduen parte da, baita esklusibotasunera bueltatuko banintz ere, monogamiaren arazoa ez baita monogamia bera, baizik eta beste aukerarik ez egotea". Mikelek bere hitzak lotzen dizkio hari konpartituari: "Egiten duguna egiten dugula, aukeratu dugulako da, ez 'tokatzen delako'. Denbora horrek balio gehiago du. Eta aldaketak edozein unetan etorri daitezke, hau prozesu bat da". Jesusen esanetan, lau urte daramatza maitasun harreman bakarrarekin, "horrela suertatu delako. Orain iruditzen zait zaila izango dela beste bat eraikitzea. Baina azkenaldian deskubritu dut sexurik gabeko maitasun platonikoa posible dela. Aurkikuntza polita izan da, gauzak mugitzen dira, bizitza hor dago".

Ez daude harreman monogamoetako min eta miserietatik libre, diote. Ez hainbeste asmo makurren ondorioz, erreminta eta jakintza faltagatik baizik

Eta solasaldiaren nondik norakoen aurrean gure zalantza, poz arrazional eta ideologiko xamarrak bilbatu ez ote ditugun. "Gozatzen duzue?". "Bai" orokortuak mataza osatu duelakoan gaudela, azken hari-puntada Sarak eman du, tripetatik eta bihotzetik: "Ni zoriontsuago bizi naiz!". Eta barre alai konplizea gailendu da gelan.

NEOLIBERALISMO LIKIDOAREN ARRISKUAK

Harreman eredu monogamo tradizionala –esklusibotasun sexuala, bizitza osorako bikotea, umedun familia nuklearra osatzen duena– auzitan dagoela ematen du, zenbait espaziotan polimaitasunaren kontzeptuak urteotan izan duen zabalpena lekuko. Horrela al da egiazki?

Brigitte Vasallo idazle eta ekintzailea (ARGIAren 2632. zenbakian gai honi buruz solastatu zitzaigun) bestelako harreman eredu iraultzaileen defendatzaile sutsua da, eta polimaitasunaren izenean nagusitzen ari diren praktika kontraiaultzaileekiko kritiko zorrotzagoa, akaso. Neoliberalismoak kooptazio eta merkantilizazio lan sakona egin duela salatzen du, polimaitasuna despolitizatuz eta funtzionala zaion ezaugarrietara moldatuz: kontsumitu eta botatzeko harreman likidoen kateatzera, non dena den erraza, dena hedonismoa, dena Hollywood. Ez da onberagoa Vasallo sektore ezkertiar eta erradikaletan ikusten dituen hainbat praktikarekin, nagusiki gizonen eskutik: praktika monogamoen azala eraldatuz –pertsona gehiagorekin txortan eginez–, sistema monogamoaren muina bere horretan mantentzen da –hierarkiak eta elkarren aurkako lehia–. Iraultzaren eta askatasunaren izenean minak areagotuz, eta min horietaz desarduratuz.

Arrisku horiekiko ardura bere egiten dute solaskideek. "Polimaitasunaren inguruko zenbait idatzi irakurrita ematen du garai bateko matxiruloa polimaitalea dela gaur egun", dio Jesusek; "Polimaitasuna kontsumo bihurtu daiteke ideia argirik ezean, poligamiarekin nahastuz". Bestelako harreman sexu-afektiboak, eurenak tartean, ez daude harreman monogamoetako min eta miserietatik libre, diote. Ez hainbeste asmo makurren ondorioz, erreminta eta jakintza faltagatik baizik. Jelosiak, bakarrik geratzeko beldurra, botere-harremanak, zaintza eza, erruduntasuna… hor daude, besteak beste. Batzuk desagertu edo baretu egin daitezke, beste batzuk areagotu, ordea, monogamia gainditu nahiagatik ere monogamiatik abiatzen garelako. Gauza ez da minen aurrean ezikusia egitea, baizik eta nola heldu horiei eraldaketa lagunduko duten modu eraldatzaileetan. Solasaldia herren geratuko litzateke solaskideek euren minak eta horiei aurre egiten ikasi dituztenak partekatu gabe. Berdin erreportaje hau ere. Horregatik banatu dugu erreportajea bitan; bigarren zatirako gonbita gaurdanik, irakurle, neoliberalismo likidoaren tranpan erori ez gaitezen. ●

Harpidetu etorkizunera
www.harpidetuetorkizunera.eus

“Kolonbian libre eta bizirik jarraitzeko berme gutxi neukan”

Mateo Gutierrez Leon
IHESLARI POLITIKOA EUSKAL HERRIAN ASILO BILA

Mateo Gutierrez Leon (1996) gazteak Kolonbiatik ihes egin behar izan du kartzelan ia 22 hilabete pasa ostean. Terroristatzat hartu eta epaituta, azaroan absolbitu egin zuten, baina bere bizitza eta askatasuna arriskuan ikusi zituenez, herrialdea utzi zuen kartzelatik atera eta bost egunera. Bere kasua Kolonbian ohikoak diren polizia muntaia dela salatu du.

TESTUA | **LUKAS BARANDIARAN** ARGAZKIA | **DOS POR DOS**

Nola hasi zen zure kontrako prozesu judiziala?
2017ko otsailaren 19an hasi zen. Egun hartan, Bogotan, bonba bat jarri zieten polizia batzuei. Horietako bat hil eta beste hainbat zauritu egin zituzten. Horrek presio mediatiko handia eragin zion gobernuari, ea zergatik gertatzen ziren halakoak Bogotan, are gehiago FARC-EP-rekin bake ituna indarrean izanik. Lau egun geroago atxilotu egin ninduten. Komunikabideek, Defentsa Ministroak eta lehendakariak atentatua aurpegiratu zidaten, baina epaiketa prozesuan ez zuten gai hori ukitu.

Zer leporatu zizuten epaiketan?
2015eko irailean panfletoz betetako *bomba panfletaria* bat jarri izana leporatu zidaten. Ustez, lekuko batek identifikatu ninduen. Hasiera batean, lekukoak beste pertsona baten deskribapena eman zuen, baina ondoren, bertsioa aldatuta, nire deskribapena eman zuen. Lekuko hori polizia izateko ikasketak egiten ari da orain, eta ni salatu aurretik, polizien bisita jaso zuen. Nire deskribapena eta izena emateko esan zioten. Horri gehitu presio mediatikoa, epaileak fiskaltzak esandakoa sinesteko zuen jarrera eta hasiera batean nire abokatuak erabilitako argumentu oker batzuk tarteko, kartzelara bidali ninduten. Ia 22 hilabete egon nintzen kartzelan, eta bitarte horretan epaitu egin ninduten. Frogatu ahal izan nuen ni ez nengoela gertakarien lekuan momentu horretan, baita identifikatu ninduen lekukoaren kasua polizia muntaia izan zela ere. Azkenean absolbitu egin ninduten. Baina prozesuak oraindik aurrera dirau, fiskaltzak helegitea jarriko duela esan baitu.

Zure kasua *“falso positivo judicial”* gisa definitu duzue. Zer da hori?
Hemen ezagunagoa da “polizia muntaia” terminoa, akaso. Armadak borroka antiterroristan emaitzak zituela irudikatzeko, pertsona zibilak hil eta gerrillariak zirela esaten zuen. *Falso positivo judicial* terminoa Alvaro Uriberen gobernuaren garaietatik dator. Orduan azaleratu zen, baina Juan Manuel Santos eta Ivan Duque lehendakariekin ere jarraitu dute. Hala, zenbait onura eta interes lortu dituzte. Krimena, terrorismoa edo segurtasun eza borrokatzen ari zirela diote, eta lekuko faltsuak erabiliz edozein pertsona espetxeratzen dute. Komunikabideek, poliziak eta gobernuak iritzi publikoa haren kontra jarri eta erruduntzat jotzen dute epaiketa egin aurretik.

Zergatik hasi zuten zure kontrako prozesua?
Nirea beste kasu askoren arteko bat besterik ez da. Zenbait sektoreren kontra modu orokorrean egiten ari diren kanpaina da: herri eta ikasle sektoreen, eta orokorrean oposizio politikoaren kontra egindako kanpaina. Eta hor asko erori gara. Ez da salbuespenezko kasu berezi bat, estatuak Kolonbiako oposizioa deuseztatzeko erabiltzen duen modu bat baizik.

Azken urteetan Bogotan jarritako lehergailu asko Movimiento Revolucionario del Pueblo-ri (MRP) egotzi diote. Zuri mugimendu horren partea izatea egotzi dizute. Hori hala dela iradoki nahi gabe, azaldu dezakezu zer den MRP?
Ni eta beste hamabi bat pertsona lotu gaituzte mugimendu horrekin. MRPk berak adierazi duenaren arabera, antolakunde berri eta independente bat da. FARC-EPrekin egindako bake negoziazioetan Juan Manuel Santos lehendakari ohiak inposatutako agenda neoliberal eta bortitzaren kontra azaldu da. Baina ezkerreko mugimenduek eta komunikabide ofizialek ezjakintasun eta estigmatizazio asko barreiatu zuten antolakunde horren parte izatea leporatu ziguten pertsonei buruz —ezin izan dutena frogatu—. Eskuin muturrak finantzatutako mugimendua zela, poliziarekin lotura zuzena zuela, baita ELNrekin lotura zuen taldea zela ere leporatu zioten. Antolakundeak adierazpen ofizialak egin izan ditu: Andino saltoki-gunean bonba bat jarri izana ukatzeko, esaterako. Kazetari bati ere elkarrizketa bat eman zioten, eta elkarrizketa horretan niri buruz galdetu zien kazetariak.

Nola eragin dizu kartzelan 22 hilabete pasatzeak?
Beti du eragina kartzelatik atera eta inguru berri batera egokitzeak, are gehiago hona etorrita. Kartzela oso inguru bortitza da, eta Kolonbiako gizarteak bizi duen bortizkeria are gordinago bizitzen da han. Dena bortizkeriaren kudeaketatik igarotzen da. Hori ez da osasuntsua, pertsonak hala hezten direlako, eta ateratzean logika horretan bizitzen jarraitzeko arriskua dute. Are gehiago, zeure burua kartzelaratzen amai dezakezu, zarena galdu dezakezu, eta hori da arriskutsuena nire ustez. Fisikoki gosea pasatzen da, dena ordaindu beharra dago, dena da gabezia, ez dago urik ez eta argirik ere, baina horretara ohitu zaitezke. Kartzelak norbanakoekiko egiten duen kontrol fisiko eta psikologikoak pertsona hori politikoki menperatzea bilatzen du. Oso bortitza da. Eta pertsona asko kartzelatik akituta, etsita ateratzen da. Hori ekiditea da gakoa, bestela iparra galtzeko arrisku handia dago.

Azaroaren 8an kartzelatik atera eta bost egun iraun zenituen Kolonbian. Zergatik etorri zinen hona?
Kolonbian libre eta bizirik jarraitzeko berme gutxi neukan. Kezka handia nuen, ea beste prozesu bat irekiko zidaten, beste batzuekin gertatu den antzera. Polizia antiterroristekin nengoenean, iradoki zidaten nire bizitza arriskuan zegoela. Are gehiago, horietako bat ni torturatzen saiatu zen komisaldegian, baina hor zen beste polizia ukatu egin zen. Nire ingurukoak ere, familia, lagunak, arriskuan zeuden. Nire bikotekideari, esaterako, beste muntaia bat egiten saiatu ziren. Kartzelako zuzendaria ere salatu nuen, leporatu baitzidan pistola bat nuela ezkutatuta, eta kartzelaz aldatu ninduten. Oro har, egoera politikoa ez zen oso aldekoa.

Euskal Herrian hilabete batzuk egin dituzu eta asilo politikoa eskatzen ari zara. Nola doa hori?
Maiatzean nire kasua azaltzen duen dokumentazio guztia aurkeztu behar diot Espainiako Gobernuari, eta frogatu behar dut Kolonbiako Estatua ni jazartzen ari dela eta nire bizitza arriskuan dagoela. Oso prozesu burokratikoa da, baina esan didate nirea bezalako kasu gehienak onartu egiten dituztela. ●

Hondarribia, atzoko zabalgunetik biharko metropolira

Pentsa dezakegu Hondarribiaren nortasuna historian zehar apenas aldatu dela, betidanik izan dela herri bat, non baserritarrak, kaletarrak eta arrantzaleak elkarrekin bizi izan garen, gure gorabeherekin. Izan ere, gaur egunean oraindik eskema hori askotan aipatzen da gure herriaren osaeraz hitz egitean. Hala izan da mende askoan zehar, baina azken hamarkada hauetan eskema hori aldatzen ari da.

KOTE GUEVARA

Nortasunaren aldaketarekin batera hiriaren diseinua eta hirigintza ere aldatzen joan da. Erdi Arotik Berpizkundera bitartean Hondarribiaren ekonomia merkataritzan, itsasoan eta baserrietan oinarritu zen. XVI. mendean, Europako guda-egoera zela eta, gotorleku bihurtu zen eta militarrak eta koroaren zerbitzura zeuden funtzionarioak etorri ziren bizitzera.

XVII. mendean, merkataritzaren gainbehera zela eta, balio estrategikoa galduta, militarrek utzi egin zuten hiria eta, horrela, iraganeko guda-garai loriatsuak ahantzi eta herri arrantzale eta nekazari bihurtu zen. Baina eredu hori ez zen baliagarria herriko elitearentzat eta erabaki zuen hiria birsortzea, zeukan funtzio nagusia errotik aldatuz. Horrela sortu zen Hondarribia udako gune turistiko bihurtzeko ideia. Horretarako, hirigune historikotik zabaltzeko aukera bazterrean utzi zen eta arrantzaleen auzoa aukeratu zen hiria garatzeko abiapuntutzat. Aristokratek, politikariek, enpresariek eta goi mailako funtzionarioek –asko madrildarrak– osatutako udatiarren kolonia garrantzitsuak bide horretatik jarraitzera bultzatu zuen hiria, eta XIX. mendeko azken hamarkadetan lehenengo zabalgunea proiektatu zen, Aginaga arkitektoarena.

1914an bigarren zabaltzeari hasiera eman zitzaion, José Ángel Fernández de Casadevante arkitekto irundarraren proiektuaren arabera. Egitasmo hori aurreko zabalgunearen jarraipena zen, bai kontzeptuz, goi mailako udatiarrentzat pentsatuta baitzegoen, baita arkitektura aldetik ere, lorategi-hiriaren ereduari jarraitzen baitzion. Primo de Riveraren diktaduraren garaian eta Francisco Sagartzazu alkatearen iritsierarekin hiri turistiko handia bihurtzeko ameskeriak azken muturreraino eraman ziren, baina Errepublikaren etorrerarekin, eta udal ogasunaren egoera larria kontuan hartuta, Sagartzazuren asmoak bertan behera geratu ziren.

Gerra ondoren jarraibide berbera mantendu zen, eta Sagartzazuren itzulerarekin batera, proiektuak berriro martxan jarri ziren. Orduko asmoak, ordea, askoz apalagoak gertatu ziren, egoera politikoa eta ekonomikoa ez baitziren alkatearen garai bateko handikerien lagungarri. Hala, bada, klase ertaineko udatiarrentzako zabalgune berri bat sortu zuten: *Campiña* edo Akartegiko zabalgunea, garai batean Muguruza Otaño arkitektoak, Sagartzazuren lagun zaharrak, proiektatutakoa.

Azken urteotako joeraren arabera, Gipuzkoako biztanleria mugitzen ari da probintziako barrualdetik kostaldera. Mugimendu hori ez da homogeneoa, ez dira edozein klasetakoak proportzio berean mugitzen. Goi mailako klasekoek errazago dute kostaldera aldatzea, bertako bizimodua garestiagoa baita eta lan eskaintza hirugarren sektorean bakarrik baitago, turismoari lotuta. Klase ertainekoen artean ere areagotu da kostaldera bizitzera joateko joera, eta probintziako barrualdea husten ari den bitartean kostaldeko populazioa handitzen ari da.

Hondarribiaren kasuan, bistakoa da bizitzeko leku atsegin eta pribilegiatua dela –itsasoa du, natura, Donostia gertu, Lapurdi ondoan–, eta, horrenbestez, biztanle asko erakarri du. Hain zuzen ere, horien arteko %60 ez dira bertan jaioak, eta indize hori Gipuzkoako handienetakoa da.

Arrantza sektorea beherantz doa, gero eta jende gutxiagok lan egiten du horretan. 90eko hamarkadan, behi gizenen garaian, arrantzale askok itsasoa utzi zuten eta lehorrera joan ziren lanera. Horrek ere eragin handia izan du herriko bizimoduan. Lehen, arrantza mundua askoz homogeneoagoa zen, ia-ia endogamikoa, familia guztia itsasotik bizi zen edo horrekin oso lotura estua zuen. Gaur egunean, ordea, hori galtzekotan dago: arrantza sektorea ez da horren itxia; arrantzaleen mundua –mendetan ez bezala– ez dago bereizita; dagoeneko ez dira denak auzo berean bizi, sakabanatu egin dira eta beste biztanleen artean bizi dira, beren nortasuna galduta nolabait; jadanik ez dira beren artean ezkontzen, lehen bezala; eta, ondorioz, gaur egungo bikoteak askoz heterogeneoak dira.

HONDARRIBIKO UDALA / GURE GIPUZKOA (CC-BY-SA)

1929KO ABUZTUAREN 24A
PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURAREN GARAIAN HONDARRIBIA HIRI TURISTIKO HANDI BIHURTZEKO AMESKERIAK MUTURRERAINO ERAMAN ZIREN. ARGAZKIAN, DIKTADOREAK HERRIRA 1929KO ABUZTUAREN 24AN EGIN ZUEN BISITA.

Nekazaritza eta abeltzaintza mundua, berriz, orain urte dezente galdu zen inguru honetan, aspaldian ez dira artaldeak Jaizkibelgo larreetan bazkatzen eta baserri bakan batzuk bakarrik geratzen dira; gutxi batzuk industria mundura eraldatu dira, beste batzuk landetxe bihurtu, eta gehienak txalet edo etxebizitzak dira.

Turismoarekin sortu diren lanpostuak ez dira oso erakargarriak; ordutegiek, soldatek eta lan-baldintzek langileak uxatzen dituzte, ikasketarik ez dutenak edo egoera ekonomiko larrian daudenak bakarrik ari dira horretan, hots, migratzaileak, ikasleak edo behin -behineko langileak.

Hala, bada, zein da Hondarribiaren etorkizuna soziologia eta hirigintza ikuspuntutik? Mundu likido honetan, zeinean aldaketak gero eta arinago gertatzen diren, inozoa edo oso ausarta izan behar da kabalak egiteko. Dokumentu ofizialetan egiten diren hausnarketak besterik ez ditut aipatuko. Esaterako, Hondarribiko Udalak 2016. urtean onartutako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean zera esaten da: "Txingudiko estuarioaren aurrean dauden hiru udalerriak (Hondarribia, Irun eta Hendaia) argi eta garbi ari dira osatzen funtzionalki eta soziologikoki gero eta integratuago dagoen hiri-unitate bat". Guztira, 100.000 biztanle inguruko biztanleria biltzen dute, eta udan kopuru hori nabarmen handitzen da. Plan Orokorraren arabera, gero eta agerikoagoa da hiru udalerrietako hiri proiektuak "bateragarri" egiteko beharra dagoela, bai ikuspegi fisikotik –bideak, egiturak–, bai funtzionaletik, bai operatibotik –produkzio-jarduerak eta merkataritza, garraio publikoa eta mugikortasuna–. Eta aspalditik entzuten ari garen, baina –gure herrian behintzat– gauzatzen ez diren bizitegi-garapeneko planteamenduak eta jarduera ekonomikoetarako espazio berrietako proposamenak formulatu behar diren lurralde-esparrua da.

Gure politikariek eta teknikariek metropoli gisa irudikatzen dute gure ingurua, eta bide hori daramala dirudi, baina, duela hogeita hamar bat urte, inork irudikatu ote zuen herriko arrantzaleak Afrikatik etorritakoak izango zirela? ●

'EUSKARA ARI DU' EKIMENA

1.117 ERRONKALARI, HERNANIARRAK XAXATZEN

Euskaraldiak Euskal Herriko txoko ugari jarri zituen dantzan 2018ko hondarrean, hamaika egunez. Hernaniarrei berriz, metxak hamaika hilabete iraun die. Mila hernaniarrek hizkuntza ohiturak aldatzeko erronkak bere egitea zen apustua, eta lortu dute. Orain, datuak irakurri eta horietatik ikasteko unea da.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Euskara Ari Du elkarteak jo zuen erronka. Elkartea ez zen ezerezetik hasia, bazuen hizkuntza ohiturak aldatzeko saiakeretan esperientzia. 2018koa hordagoa izan zen. Erronkari *Baietz Hernanik!* izena jarri eta hilero ehun hernaniarrek euskarari eusteko edo ondokoari euskaraz aritzeko aukera emateko erronka bat betetzera animatu nahi zituzten. Otsailean hasi eta abenduan bukatu, ea denera mila lagun arituko ote ziren. Ez derrigor denak batera. Ausartenek otsailerako izena eman zuten eta urte osoan segi zuten erronka bati edo besteari helduta, nahiz eta luze iraun zuten partaide gehienek erronka mota ez zuten aldatu. Beste batzuk xumeago hasi ziren, eta hilabetez edo hainbat hilabetez izan ziren erronkalari, urte osoko lanak hartu gabe.

Izen-ematea, jarraipena eta emaitzak biltzea Aztiker enpresak kudeatu du. Urte osoko ibilbidea kontuan hartuz gero, 1.117 herritarrek hartu zuten parte. %63,9 emakumeak izan dira, %35,4 gizonak, eta %0,6k ez du aukeratu ez bat ez bestea. Hizkuntza ohiturak aldatzeko egin diren beste hainbat egitasmotan bezala, Euskaraldia kasu, emakumeak nagusitu dira.

Adinari dagokionez, partaideen erdia inguru 30-44 urte artekoa izan da. Zenbat eta adin tarte zaharragoa orduan eta partaidetza txikiagoa.

1.117 erronkalarietatik 986 lagunek euskaraz hitz egiten bazekiten eta 131ri kosta egiten zitzaien hitz egitea baina ulertzen zuten. Euskaraldiko bi rolak erabiliz esango bagenu, esan dezakegu %88,3 ahobiziak zirela eta %11,7 belarriprestak. Euskara ulertzeko gai ez zirenek ezin zuten parte hartu.

Partaide bakoitzak erronka bat aukeratu behar zuen hilabeterako eta aukeraketa erraztu aldera antolatzaileek aukera sorta eskaini zieten. Hiru multzotan bil daitezke partaideek gehien egindako aukerak. %30ek erabaki zuen bizitzako eremu guztietan, egokituko zitzaizkion harreman guztietan, euskaraz egingo zuela edo euskaraz egiteko eskatuko ziola parekoari. %18,3k esan zuen erronka lankideekin egingo zuela. Hernanin Orona enpresa dago eta lantoki honek partaidetza sendoa izan zuen *Baietz Hernanik!* egitasmoan eta horrek eragin zuen lan mundua sailkapenean bigarren tokian kokatzea. Hirugarren, laugarren eta bosgarren sailkatuak kontuan hartuta, denak gertuko harreman sareei lotuak dira, hau da, hernaniarrek erronka bikotekidearekin (%7,5), lagunekin (%7,2) eta senideekin (%6,9) egitea erabaki zuten.

Hizkuntza ohituretan aldaketarik izan den jakiteko 420 partaideren erantzunak baliatu ahal izan dituzte. Urte osoan 1.117 pertsonak eman zuten izena parte hartzeko, baina ohikoa den legez, denek ez zituzten balorazio inkestak bete. Bestalde, erronka bera egin dutenak eta era berean balorazio inkesta bat bete dutenak hartu dira kontuan. Labur esanda, eta infografia begiratzen baduzue, ikusiko duzue nola erronka baino lehen %38,5ek zioen beti edo gehienetan egin zuela euskaraz erronkarako aukeratu zuen pertsonarekin edo taldearekin, eta erronka garaia bukatu eta gero %67,6ra igotzen da zifra. Aldiz, "erdia euskaraz eta erdia erdaraz" eta "euskaraz gutxitan edo inoiz ez" portzentajeek behera egiten dute. Hurrengo infografiak alderantzizko informazioa ematen digu, alegia, erronkalaria ari zaigu esaten erronkarako aukeratu dituen pertsonek edo taldeek berari zenbat egin dioten euskaraz. Hor ere, "beti edo gehienetan euskaraz" eta "erdi eta erdi euskaraz eta erdaraz egin" ataletan gorakada sumatzen da. Bigarren infografiak erakusten du erronkalariek jomugengan eragina dutela hizkuntza ohiturak aldatzeko orduan. Bi infografietan, euskaraz dakiten eta ulertzeko gai diren erronkalariak batera daude.

Aipatu berri ditugun emaitzak erronkalariek betetako inkesten arabera lortu dira. Partaideei galdera zuzena ere luzatu zaie ordea, alegia, haien ustea jakin nahi izan dute antolatzaileek. Ondoko galdera egin zieten: Zein neurritan iruditzen zaizu bete duzula jarritako erronka? Hortxe duzue erantzuna: %30,3k uste du guztiz bete duela erronka, %66,3k uste du urrats bat eman duela eta %3,3k uste du ez duela erronka betetzea lortu.

Erronkak betetzeko zein zailtasun izan dituzten galdetu zaie partaideei eta erantzunetan bi nagusitu dira: "hizkuntza ohiturak aldatzea zaila da" eta "erronka jo nahi nion pertsonarekin edo taldearekin egoteko aukera handirik ez dut izan". Bi zailtasun nagusi horiek bi multzoetan nagusitu dira, bai euskara dakitenen artean baita euskara ulertu baina hitz egiten ez dutenen artean ere. ●

Sexua



Adina



Euskararen ezagutza



*ED/EE = Ez daki / Ez du erantzun

Partaideek euskarari eusteko aukeratutako pertsona edo taldeak



Erronkari zenbateraino eutsi dioten partaideek



Erronkalarien jomugek zenbateraino eutsi dioten



Erronka aurretik · Erronka ondoren

Iturria: Aztiker, "Euskara Ari Du Hernanin: Baietz Hernanik! Erronkaren informea, 2018".

Kalearen ahots, *aldaketa*-ren akuilu

AHOTSA.INFO

Ahotsa.info hedabide nafarrak 2014an ekin zion bere ibilbideari, oraindik UPN Nafarroako Gobernuaren jabe zela. *Corralitoa*-ren erorketa bultzatu, egoera berria dastatu eta gaur egun ere jarraitzen du orduko aldaketa akuilatzen. Egunotan 5. urteurrena ospatzen ari dira.

TESTUA | **XABIER LETONA**
ARGAZKIAK | **EKIN KLIK**

2014ko otsail hotz hartan, Kontuz elkarteak deitutako manifestazioan 35.000 lagunek Yolanda Barcinaren dimisioa eskatu zuten; Nafarroako Legebiltzarrak UPNren 'Goikoetxea auzia' ikertu zuen; PSNko buru Roberto Jimenezek agur esan zion Nafarroako politikari eta, UPN-PSNren *corralitoa* kolokan egon arren, bi alderdiak prest agertu ziren hurrengo legealdirako enegarren ituna lotzeko.

Baina 2015eko maiatzean zenbakiek ez zuten halakorik ahalbideratu eta aldaketa eman zen. Hori izan zen *Ahotsa.info*-ren sorrerako helburuetako bat: aldaketa posible egitea eta elikatzea. Bost urte geroago pozik dira, "asmatze eta akats guztiekin" *aldaketa* hori abian delako. Horri indarra ematea eta herri mugimenduen ahotsa izatea komunikabidearen geneetako dago.

23.000 euro bildu zituzten *crowdfunding* bidez eta ekin zioten berriz ere sareko lanari. Berriz ere? Bai, hala esan liteke, nondik zetorren kontuan hartuta. *Ahotsa.info* ez zen zerotik abiatzen, *Apurtu.org* –2007-2011– eta *Ateak ireki* –2011-2013– webguneen oinordeko baita. Espainiako Auzitegi Nazionalak agindu zuen bien itxiera, bietan euskal preso politikoen sostengu lanetan aritzea leporatuta, eta Espainiako Estatuaren "dena da ETA" estrategiaren baitan. *Ahotsa*-k berak ere behin baino gehiagotan sentitu du Estatuaren jazarpena, azkena 2018an: Auzitegi Nazionalak ikerketa ireki zuen medioak urte hartako uztailean egindako bi albistetan "euskal preso politikoak" erabili zuelako. Salaketa Espainiako Poliziaren ekimenez egin zen eta epaileek ez zioten biderik eman.

Apurtu-ren itxieraren ondorioz, hedabide hartako kazetari Miguel Angel Llamas *Pitu*-k urte eta erdi eman zuen espetxean. *Ateak Ireki*-n ere aritu zen eta gaur egun *Ahotsa*-ren arimetako bat da. Bera eta Iñigo Orduña *Majaris* dira proiektuko soldatapeko langile bakarrak. Haien inguruan ari dira beste dozena erdi kolaboratzaile, besteak beste, Nagore, Nekane, Unai eta Jon.

> **"Gaur egun, ekoizpenaren heren bat euskaraz dute, 'eta joera goranzkoa da', dio harro Pitu-k"**

1.000 BIDEOTIK GORA

Iruñerriko herri mugimenduren baten jarduera edo kale mobilizazioren bat badago han dira *Pitu* edo *Majaris* euren kamera eta mikrofonoekin, edo baita Nagore edo besteren bat ere, sakelakoaz jaso eta sare sozialetan informazioa astinduz. Gutxi baina emankorrak, edonon dira. Kazetari honek gogoan du 2017ko irailaren 29an –urriaren 1ean Kataluniako erreferenduma zen– Batzelonako Sants auzoko Can Batlló gunera iritsi zela ARGIAko lan taldea, han erreferendumaren gaineko informazioa egongo zegoelakoan eta... "hemen ere bai?". Han ziren *Ahotsa*-ko hiruzpalau kazetari Ekin Klikeko argazkilariekin batera.

Bideoa da euren arma sekretua: gertaera jaso eta handik ordu gutxira lana argitaratuta dago haien webgunean eta sare sozialetan dabil bolo-bolo. Dagoeneko 1.000 bideotik gora ekoiztu dituzte. Horietako batzuek sutan jartzen dituzte sare sozialak, esaterako Maravillas Gaztetxearen lehen hustuketak eta haren inguruko liskarrenak. Kanporatze haren bideoak, adibidez, 232.000 ikustaldi izan ditu You Tuben eta joan den martxoaren 24ko Altsasuko manifestazio erraldoiko argazkia zeraman txio batek 1.000 bertxio lortu zituen Twitterren. Hedabide askoz handiagoei ere asko kostatzen zaie kopuru horietara iristea. Twitterren

21.700 jarraitzaile dituzte, Facebooken 20.000 eta You Tuben 7.300 bazkide.

Kazetaritzak kontrol izaera ere baduela erakusten du haren jardunak, bereziki segurtasun indarren lanari dagokionez. *Ahotsa*-ren bideo asko oso garrantzitsuak izan dira hainbat epaiketatan auzipetuaren alde egiteko, haiekin gehienetan poliziaren bertsioa gezurtatu delako. Aro digitalean, ostera, txanponaren beste aldea da haien lanak erabili nahi izan dituztela hainbat pertsonaren aurkako salaketak egiteko; oraintsu, esaterako, Nafarroako Espainiako Gobernuaren ordezkaritza *Ahotsa*-ren txio batez baliatu da Xabier Rey presoaren heriotzaren lehen urteurreneko ekitaldia debekatzeko.

KALEA, MEDIOAREN MARKA

Katakraken gaude solasean *Pitu* eta *Majaris*-ekin. Galdera mahaiaren gainean geratu da: Eta zergatik bideoa? *Pitu*-k dio formatu modernoa dela eta sareetan ongi mugitzen dela, "horrez gain, Nafarroan egon da bideoaren inguruko kultura bat, besteak beste Eguzki Bideoekin. Gainera, ez da tresna zaila, baliabide asko dauzka eta, formakuntza eta sormen pixka batekin gauza asko egin daitezke". Edozein kasutan, biek argi dute zer den garrantzitsuena: "Kalean egotea da gure marka eta gertatzen ari dena kontatzea".

Dena ez da urre ordea, gaur egungo gizartean eta kazetaritzan hain latza den prekarietateak ongi ezagutzen ditu *Ahotsa*-ren barrenak. Soldata txikiak eta lan ordu asko egin behar izaten dituzte, "baina sikiera guk nahi duguna egiten dugu", zehaztu du *Pitu*-k. Hedabideak hainbat finantzazio iturri ditu eta horietan bizkarrezurra beren 200 bazkideak dira. Publizitatea eta bideo komertzialen ekoizpena ere baliatzen dute finantzabide gisa. Azken legealdian, halaber, bi urtetan 3.000 euro jaso izan dituzte Nafarroako Gobernuko diru-laguntzen ataletik haien edukien artean euskara ere erabiltzeagatik. Gaur egun, ekoizpenaren heren bat euskaraz dute, "eta joera goranzkoa da", dio harro *Pitu*-k. ARGIA sarean jarraitzen duenak sarri ikusiko ditu bertan *Ahotsa*-ren albiste eta bideoak, *copyleft* politika medio gurera ekarrita.

> **"Bideoa da euren arma sekretua: gertaera jaso eta handik ordu gutxira lana argitaratuta dago haien webgunean eta sare sozialetan dabil bolo-bolo"**

Hauteskundeak datoz berriz maiatzean eta aldaketa kolokan gera liteke. Prekario dabilenaren geroa ere hala moduzkoa izan liteke. Beraz, iragana ahaztuta, etorkizuna nola dakusaten jaurti diegu: "Ez dago denborarik etorkizunean pentsatzeko, partiduz partidu ari gara eta kito".

Eleok jaurti eta hurrengo partidurantz atera dira Donibane auzorantz, han arratsaldeko 20:00etan Angel Berrueta ren hilketaren 15. urteurreneko omenaldia da eta ekitaldia jasoko dute. Gu haiekin goaz. Lehia izan da, baina euri jasak eta hotzak ez dute estali omenaldiaren beroa. Ordu eta erdi geroago bueltan gara Iruñeko Alde Zaharrerantz. Gaurko lana *Majaris*-ek sareratuko du. Ez diot galdetu afaldu aurretik ala ostean egingo duen, baina gauerdirako Angel Berruetaren alaba Aitziberren hitzak sarean zeuden: "Hil zintuzten, Espainiako gobernu batek gizartea berotu zuelako martxoaren 11ko atentatuak ETAk egin zituela esanez". Edozeren gainetik, haien ahotsa baita garrantzitsuena. ●

ARANTZA ETA ELORRIA

ARGAZKIAN ASTOLARROSA

Landare batzuek ur eskasiari aurre egiteko bihurtzen dituzte hostoak arantza; beste batzuek animalien hortzak uxatzeko sortzen dituzte; beste batzuek zurtoinaren azala babesteko; beste batzuek hostoak eta azalak zaintzeko; eta beste batzuek fruituak aterpetzeko.

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Arantzak eta arantzak daude. Bai lagunetan ere: Arantza, Arantxa, Arantzazu, Arantxi, Aran... Horietako zenbaitzuk ere badute arantzetik, bista askoan batzuek! Beste arantza batzuek hel nazaten nahi dut.

Egurrak eta zurak lantzean edo haustean sortzen dira ezpalak; baita txikiagoak diren printzak, eskailak, izpiak eta ezkardak ere. Gure amona Garbiñe, esku ahurrean sartu zuen etxeko eskailerako zurezko eskudelaren ezkarda batek sortutako tetanosak ia eraman zuen umetan.

Landareek, inork hautsi beharrik gabe ere sortzen dituzte arantzak. Kaktusek, adibidez, hostoak arantza bihurtu dituzte, transpirazioa murriztu eta ur eskasiari aurre egiteko. Beste batzuek animalia belarjaleen hortzak uxatzeko sortu dituzte arantzak. Zurtoinaren azala babesteko, sasiakaziak (*Robinia pseudoacacia*); hostoak eta azalak zaintzeko, elorri zuriak (*Crataegus spp*), elorri beltzak (*Prunus spinosa*), maaltzak (*Pyrus pyraster*), sagarminak (*Malus sylvestris*), astoarrosak (*Rosa canina*), laharrak (*Rubus spp*), gorostiak (*Ilex aquifolium*) eta beste hainbatek; fruituak aterpetzeko gaztainondoaren (*Castanea sativa*) morkotsa adibide garbia da.

Arantza bakoitzaren sorrera ere berezia da. Gorostiak, adibidez, landarearen beheko aldeko hostoen ertzetan ditu; goikoetan arantzak sortzeko energiarik ez du alferrik galtzen, behor lepaluzeenaren hortzak ere ez baitira iritsiko. Sasiakaziak hostoen azpiko estipula edo txorten-hostoak arantza bihurtu ditu. Elorriek, maaltzak eta sagarminak adarrak liratekeenak arantza egin dituzte. Arrosak eta laharrak azaletik sortzen dituzte arantzak; hatzekin erraz kentzen diren horiek. Badira sustraietan arantzak ematen dituzten landareak ere, *Acanthorrhiza* generoko palmondoek, adibidez.

Eta denei arantza esaten diegu. Berdin da axaleko txakur letagin itxurako arantza, hortik astoarrosaren *Rosa canina*, edo zur asko baino gogorragoa den elorri beltzaren arantza luze eta gogorra, hortik *Prunus spinosa*.

Arantzak baina izen asko du: arantza bera, elorri, erren, xixta, zizta, eta gehiago ere izango dira. Denek gauza bera esaten ote dute? Ala izen bakoitzak era bateko arantza adierazi nahi du? Ea Arantzazuko edo Arantzako Arantzaren batek zalantza argitzen digun. ●

KRISPILAK

TXANTREAKO HIRI BARATZEA AUZOTARREN TOPALEKU

GARAZI ZABALETA

Geroz eta hiri gehiagotan ikusten dira baratzeak azken urteotan. Auzotarrentzako elkargune izaten dira gune horiek askotan, eta topaleku hori sortzeko asmoarekin jarri zuten martxan Iruñeko Txantrea auzoko Krispilak hiri baratze proiektua 2018ko uztailean. "2017an eman zigun lursaila udalak Alemanetako auzoan, eta iaz Sanfermin bezperan jarri genituen azken bankalak. Geroztik hor gabiltza lan eta lan", azaldu du Irantzu Santamaria baratzeko kideak. Urteak zeramatzaten TX Bizi elkartean egitasmo honen bueltan lanean.

BERE TOKIA BERRESKURATZEN

Txakurrentzako kaka toki bihurtua zegoen lursailari bizia eman diote berriz ere Krispilak taldeko kideek. Izan ere, aspaldiko garai batean gune horretan bertan baratzeak zeudela gogoratu du Santamariak: "Espazioa berreskuratzeko modu bat izan da proiektua martxan jartzea. Errekaren ondoan lursail guztiak baratzeak ziren orduan", dio. Orain ere, Aranzadi parkea dute ondoan, baratze tokia da ingurua. Krispilak izena bera, inguru horretako uhaza motari lapurtu diote.

1.300 metro koadro inguruko azalera dauka Krispilak auzo baratzeak: zortzi bankal handi, bost bankal txiki, konpostagailua... Jende askok aldi berean lan egiteko pentsatuta dago gunea. Lursaila ezezik, udalak bankalak egiteko materiala, baratzerako tresneria, ura eta landareak ere ematen dizkie baratzezainei.

AUZOLANA OINARRI

Larunbatero goizeko hamarretatik hamabietara elkartzen dira baratzeko kideak eta auzotarrak beharrezkoak diren lanak egiteko. "Egutegi bat daukagu landaketak noiz egin ikusteko, eta azaltzen garenon artean lanak banatzen ditugu momentuan", dio Santamariak. Auzolana du oinarri Krispilak proiektuak, eta horixe bera du aberastasun nagusi. Haur, gazte nahiz adinekoen elkartrukerako gunea baita auzo baratzea, lanerako ez ezik hizketarako eta sozializatzeko toki. "Bizilagunen topagune den heinean, bizia ematen dio baratzeak auzoari, baina ez hori bakarrik: oso polita da landareak poliki-poliki hazten ikustea. Haurrek haziak sartzen dituzte eta hor datoz larunbatero ea landareak nola doazen begiratzera, ilusioz", dio Krispilakeko kideak. ●

Basherri sarea
GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK
info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus
HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

1965eko urtarrilaren 24a

KOLDO IZAGIRRE

Ehungarren alea, eta euskaldunak bere burua eraikitzen abiatuak... Orduan geneuzkan euskarazko aldizkari xumeei laguntza ekonomikoa eman ezkero, "Guk bai euskerea jasoko geunkela" dio Aita Onaindiak. "Bertsolari haundietan haundia da Xalbador", aitortzen du Basarrik. Alemania zatitua arazo bat dela Europarentzat uste du Rikardo Arregik. Irratiek zaborra emititzen duten artean gure kontzertu aretoak hutsik egonen direla beti diosku Jon Oñatibiak. Teatro taldeak gero baino gero indartsuago dabiltzala jakinarazten digu Iñaki Beobidek, denak lanean fin. "Iruditzen zait gaurko euskal poesia gerraurreko grado gailena alkantzatzen hasi dela" ematen du sententzia Gabriel Arestik. Gure industriari buruz "Burgesiaren jokabidea izan da lantegiak hedatu eta pilatzea, makina garestien ordez peoi talde merkeak erakarriaz" argitzen du Gurutz Ansolak, teknikan eta ikerketan helduko zen krisia iragarriz. Eta Oteitza'tar Gorka delako batek sinaturiko poema kontrazalean: "Euskeratu behar banaute, zergatik deitzen didak Zeruko Argiatik? / Honela aldentzen ikusten banauk / haur nintzaneko nere hizketa galdua jasotzerik ezin onartu dezakedalako dek / ez zioat inori barkatzen / zeruko argia nork euskeratzen dik? / Ken esku hori / ez zaidak lagundu / nere buruaren bengazioa nauk..."

Ehungarren alea, eta Zeruko Argia ezinbestekoa bihurtzen ari bere burua euskaratuz eta errealitatea euskaldunduz. ●

ARGIAK 100 URTE

Jarri serio, Kike Amonarriz dator

MIREN OSA GALDONA

Hogeita hamalau urtetan ARGIAko zure jarduna umorean zentratzen baduzu, zure lana "oso serio" ez hartzea leporatu diezazueke. Ez zaituzte seriotzat joko, ezta ere, hedabide horren 100 urtetako ibilbidean umorezko edukiaren zati handi batek zure sinadura izan badu, eta, are gutxiago, zure azken lanari *TxoraKIKEriak* izena jartzearekin gutxi ez-eta, Mona Lisaren koadroari zure aurpegia gehituz muntaia irribarretsu bat aurkeztu baduzu jendartean.

Umorea, baina, oso kontu serioa dela ondotxo daki Kike Amonarrizek. Hiru hamarkadaz txiste-kontari aritu zen ARGIAn, "kasualitate" baten ondorioz. Amonarrizen beste txiste bat dirudi gertaerak: "Euskal Filologia ikasketak amaitu berritan hasi nintzen ARGIAn kolaboratzen, beste pare bat ikaskiderekin. Zutabe umoretsu bat genuen, edukiz jantzi behar zena, baina egun batean edukirik ez nuela-eta, txiste sorta bat jartzea otu zitzaidan".

920. alean argitaratu ziren estreinako txiste haiez geroztik, makina bat gai eta esparru jorratu zituen Kikek ibilbide osoan zehar. Irakurleek asko estimatu izan duten txokoa izan da, eta egileak ere konpromisoz erantzun zuen astez aste ARGIArekin zuen hitzordura: "Frantziari asko begiratzen nion txisteak egiterakoan. Asko gustatu izan zait betidanik frantsesen umorea. Kalean entzundakotik ere idazten nuen. Baita itzulpen ez zuzenak egin ere. Esan behar dut, hala ere, amaierako txisteak politikoki kritikoagoak direla hasierakoak baino; zerbait ikasi izanaren seinale izango ote da", dio garai ez hain zaharrak gogora ekarriz.

Txisteak geroz eta algara handiagoa eragiten hasi ziren, eta hala iritsi ziren, besteak beste, Joxe Ramon Galarraga eta biak herriz herri ibili ziren Txiste Afariak, *Arpa jotzen* (Iñigo Aiestaranekin batera ateratakoa) zein *Txorakikeriak* liburuak (hauetan lehenengoa Xabier Telleriarekin batera egindakoa), eta *Txisteka Misteka* kaseteak (Galarragarekin hau ere); azken honetatik ateratako dirua ARGIA sostengatzeko erabili zen, egileek hala eskatuta. Kolaboratzeari utzi gabe, Euskal Telebistan hasi zen lanean Amonarriz, *Txiskola* saioan, hori ere umoreari lotutakoa. Urte batzuk beranduago, aldiz, erredakzioaren erraietaraino sartu zen, komertzial lanetan aritzeko: "Asko ikasi nuen bost urte haietan: taldean lana egiten, jendaurrera egoten, komertzial munduaz, eta abar. Durangoko Azokan ARGIAko mahaian egotea izugarria izaten zen niretzat".

ALBERTO ELOSEGI

1983an, Antza inprimategian, atera berri zen *Arpa jotzen* txiste liburua eskutan dutela ageri dira Joxe Mari Irazusta *Argia*-ko orduko kudeatzailea eta Kike Amonarriz liburuaren egilea.

"Mimoz eta maitasun handiz" oroitzen ditu ARGIAn pasatutako urte mordoak, uste ez zuen ate bat ireki baitzitzaion hasieratik –umorearena–, eta hari lotua egon baita, modu batera edo bestera, arlo pertsonal nahiz profesionalean. Irribarre berarekin oroitzen zaituzte ARGIAren Lasarteko egoitzan Kike, txistez eta seriotasunez bete zenuen txoko beretik. ●

ARGIA JENDEA

100 URTEKO SOKA-DANTZA DOKUMENTALA

Soka askatzeko asmorik gabe

100 URTEKO SOKA-DANTZA
ETBn emango dute dokumentala
Apirilak 14, igandea 15:00

Argia.eus webguneko multimedia atalean ikusgai egongo da apirilaren 15etik aurrera.

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Gorde apirilaren 14a. Egun pasa egiteko asmoa duzula lagunekin, zure lan prekarioagatik hilabetean igande bakarra duzulako jai? Bada utzi egun pasa maiatzeko iganderako. Bikotea eta biok irakasleak zaretela, Aste Santuan bi aste oso dauzkazuela opor, eta furgoneta eta bi umeak hartuta ostiralean bertan mendira zoaztela? Bada abiatu astelehenean. Aurreko gauean parrandan ibili zarela eta bazkalostea sofan luzatu nahi duzula? Hauxe da zuretzat aukera paregabea! ARGIAren 100 urteen errepasoa egiten duen dokumentala botako dute 15:00etatik aurrera ETB1en.

Hiru Damatxo taldeak egin du ikus-entzunezkoa, *100 urteko soka-dantza*. Komunikazio proiektuaren ibilbidea azaltzea du asmo, "fraideen gonapetik hasi eta gaur egungo kazetaritza independenteraino", esan digu Kepa Matxain grabaketa eta edizio lanetan ibili den damatxoak. ARGIAren historia azaltzeko mundu mailatik Euskal Herriraino ekarriko gaituzten gertakarietan jartzen du lentea dokumentalak, herri honetan ernetzen ari zen euskarazko komunikabidearen ibilbidea egoera globalean kokatzeko. Eta nola ez, historia honetako protagonisten testigantzak dira soka-dantzaren kontakizunen oinarri nagusi. Horrek muga bat du, ordea, denborak ez baitu barkatzen. 1976ko *Zeruko Argia* hartatik gaurko ARGIA honetara arteko testiguek hitz egiten dute dokumentalean, Elixabete Garmendiarengandik hasi eta Gorka Bereziartuarenganaino. 1919tik 1976rainoko tartea hemerotekatik osatu dute, *Zeruko Argia*-z idatzita dagoenetik, entzundakoetatik.

Belaunaldiz belaunaldi egin dute errepasoa. "Kuriosoa da nola bakoitzak bere garaian eta bere modura, baina oinarrian soka berari heltzen dioten", dio Matxainek. Zaharrenek bezala gazteenek hitz egiten dute enpresa ulertzeko eta egiteko modu batez, kazetaritza entenditzeko era batez, herri ekimenetik sortu eta langileena den enpresa batez, autonomiaz, independentziaz... "Antzeko kodeak darabiltzate, ñabardurak ñabardura, belaunaldi guztiek", jarraitu du.

Sarri ikusi dizkio ARGIAk Damaso Intzari bizarrak, baina tente dirau, eta hurrengo belaunaldiak ere ez du soka askatzeko asmorik. ●

ARGIA
1919 · 2019

AGENDA

BERDEA DA MORE BERRIA
LIBURUAREN AURKEZPENA

Hizlaria: **Onintza Irureta,** liburuaren egilea
Donostia Kaxilda
Apirilak 29, astelehena 18:30

AZOKA

AZOKA.ARGIA.EUS

KONTZERTURAKO SARRERAK
Apirilaren 27an, larrunbata, Ondarrun egingo den Redstone Replay festibalerako bost sarrera bikoitz.
MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:
Apirilak 18, osteguna, 10:00etan.

NOLA DA "MUSUTRUK"?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu *Argia Jendea*rentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da. Denon esku dago *Argia Komunitatea* elikatzea, bakoitzak ahal duena besteen esku musutruk jarrita.

1993-2018 • EUSKAL ZARATAREN AZKEN MENDE LAURDENA

ANTIBIRTUOSISMOTIK, HERRI MUSIKARA

1993. urtean eratu zen Gutariko Bat taldea, baita Dut ere. Urte hartan argitaratu ziren Beti Muganen *Oreka desorekan* eta Ama Say taldearen *Ikusi ditut umeak kalean ametsak akatzen* diskoak. Urte berekoak dira, halaber, Getxo Sound delakoaren gakoak izan ziren El Inquilino Comunista eta Lord Sickness taldeen lehen lanak. Cancer Moonen *Moor Room* ere 1993koa da, baita Negu Gorriaken *Borreroak baditu milaka aurpegi* ere. RRVak bere onenak emanak zituen ordurako, metalaren eta hip-hoparen eraginak sumatzen hasiak ziren gurean eta euskal rocka aniztasuna irabazten ari zen aipatutako taldeen ekarpenen ondorioz, besteak beste.

JON URZELAI

Hamarkadaren hasiera hartan "antibirtuositatearen soinua kanon bihurtu zela" dio Xabier Erkiziak. Izan ere, Amerikako Estatu Batuetako musika independentearen eraginei jarriki, rockaren molde klasikoak deseraiki eta formula posibleak biderkatu ziren, finkoak ziruditen mugetan arakatzearen ondorioz. *Underribi* bilduma Hondarribia inguruan gertatu zenaren testigantza egokia da eta Noise Hole eta Zup taldeek utzitako aleak baliagarri zaizkigu Berako harrobia hobeto ulertu ahal izateko. Azkoitiko Matadeixe, ezinbestean aipatu beharreko Akauzazte taldeaz harago, erreferentziazko musika laborategi, areto eta sorleku izan da geroztik –dagokigunerako, Carlos Desastre tartean izan zituen Compañía de Sueños Ilimitada zigilua eta Después De Nunca taldea aipa genitzake, beste hainbaten artean, bertako uzta hobe ulertze aldera– eta Tzesne eta Xanti Manterolak osatutako Gutural proiektu industriala lehenetarikoa izan zen elektronika eta metala uztartzen, Donostiako Buenavistan. Honen guztiaren laburpen egokia da, orobat, 1999an argitaratu zen *Museum* bilduma.

Azken argitalpen horretan Borrokanen lehen abestiak ere entzun daitezke, eskola beraren bigarren olatu batean kokatu genezakeen Berako taldea. Lif, Izaera, Eten edo Lisabö bezalako taldeekin batera, ildo berari jarraitu zioten hauek ere, Xabier Erkiziaren arabera "egiten zutenaz puskaz kontzienteagoak" izanagatik. Nola hauek guztiek, hala gerora etorri diren Sacco, Tooth edo Bob Xatar bezalakoek, jada zedarrituagoak zituzten estetika zaratatsu haren mugak eta urrunago, ziur aski, bidean galtzearen zirrara.

ARROKA URTZEN

Taldeak eta diskoak zerrendatzen jarraitu beharrean, merezi du milurte berriak ekarritako aldaketei erreparatzeak. Urte haietan, Donostiako Elektronikaldia, Berako Ertz edota Bilboko MEM Nazioarteko Arte Esperimentalen Jaialdia bezalakoek zarataren nolabaiteko instituzionalizatze bat ekarri zuten. Soinu esperimentazioaren arnasleku bilakatuko zen Artelekuko AudioLab ere; eta beste hainbeste esan genezake Arto Artian kolektiboaz edo Le Larraskito klubaz.

Era berean, garaiek hala aginduta eta ezinbestean, gune hauetan (ere) emandako deseraikuntza eta jolasak zarataren formari egokitzapenak eragin zizkion. Zenbait musikarik rockak eskaintzen zituen aukerekin aspertu eta Tzesne edo Amsia bezalako aitzindarien lekukoa hartu zuten, soinu uhinak manipulatzeko teknika berriek eskaintzen dituzten aukera ugariez baliatzeko. Mattinek gidatutako Billy Bao edo Killerkume bezalako taldeen bilakaerak izan daitezke horren bi adierazle egoki, abiapuntutzat zituzten rockaren aldaera bortitzak deseraiki eta askotariko

MAGMADAM. ZARATA EGITEN DUTEN ARTISTEK AUZITAN JARRI DUTE AZKEN URTEETAN ROCKAK BERE-BEREA DUEN JARRERA MASKULINOA. DESERAIKUNTZA BIKOITZA DA, MUSIKALA ETA GENERO ALORREKOA. ARGAZKIAN, ITZIAR MARKIEGI ETA MYRIAM PETRALANDA, MAGMADAM PROIEKTUAREN EMANALDI BATEAN.

elementuak txertatu baitizkiote beraien formulen kontrako errezeta anbiguoari.

Rockaren moldeekin haustearen eskutik etorri da, hein berean, rockak bere-berea izan duen agertoki gaineko eredu maskulinoaren gainbehera erlatiboa ere. Agian, horrek hauspotu ditu Baseline, Miryam Rzm, Garazi Gorostiaga edo Itziar Markiegi bezalakoen hamaika proiektu irudimentsu. Azken hau, Jana Jan izenpean gailu elektronikoen erroreetan oinarritzen da ordenagailuetako *plugin* ezberdinen kode binario aurrezehaztuetatik ihes eginez musika osatzeko. Definizio hertsiez harago joateko nahi horren oihartzunak topatu genitzake, nahi izatera, genero deseraikuntzaren muinean berean ere.

ITSASOTIK ITURRIRA

Eta laino digitalaren garaiotan zer? Xabier Erkiziak dio "arretaren zarata eta arretaren gerra" dela orain bizi duguna. "Kanontxoen munduan" bizi omen gara, oso denbora laburrean sortu, kontserbadore bilakatu eta hiltzen diren eredu iheskorrez osatutako inguru kultural batean. Zarata beti izan da kontestuala, baina gaur egun, inoiz baino gehiago. Eta gaurko testuinguruek iraungitze data bizkorra dute.

Gaur egungo zarata logika horren kontra egingo duen zerbait izan behar omen da, desioa jaten duen irudiaren botere itogarriari eta hiperestimulazioari aurre egingo diona. Erantzun gisa, agian, bada herri musikaren biziberritze bat, erroetara itzuli eta muinetik berreraikitzeko gogoaren ondorio. Horretan ari dira Artelekuko AudioLaben garaian kanon berriak ez eraikitzeko metodologiak lantzen aritu zirenetatik asko –urte haietan, bertan egin zuten topo Iban Urizarrek, Maite Arroitajauregik, Oreka TX-ekoek, Angel Unzuk, Ibon Rodriguezek, Oier Etxeberriak edo Gaizka Sarasolak– eta horren fruituak dira egun jasotzen ari garenak. Ezin joera hau ongi ulertu, dena den, Xiru eta Errobiko festibala bezalakoek egindako ekarpenak ere aipatu gabe.

"Estiloa erlijio gisa defendatu dutenak eta praktikak defendatzen dituztenak ezberdintzen dira, azken hauek ez baitute aurreiritzirik bide hori ondorio guztiekin jarraitzeko". Horixe esan digu Erkiziak eta berriki argitaratu dira horren adierazle izan daitezkeen bi disko: IbonRG sestaoarra, adibidez, esentzialismoei jaramon handirik egin gabe iritsi da euskal kantaera tradizionalera, Beñat Achiary bezalakoen ildo askeari jarraiki. Lurpekariak nafarrek, aldiz, *Itsasotik iturrira* diskoa kaleratu dute, musika herrikoi eta tradizionalaren molde eta estrukturen gainean jazz inprobisazio libre eta ausartez osatua.

Azken proiektu horretako partaide den Jon Celestinok dio folklorea bera ere zientzia fikzioa besterik ez dela. Ezagunaren mugetatik at kokatzen den lurralde bat dute Lurpekariek jomuga, beraz, eta horrek lotzen ditu, finean, Artze, Gutariko Bat eta beste hamaika ere. ●

"Bizitzak zeharkatzen ez duen performanceak ez du inolako interesik"

ESTHER FERRER, ARTISTA

Esther Ferrer (Donostia, 1937) atzera eta aurrera dabil bere oinkada luzeekin erakusketa aretoan barrena. Tabakaleran apirilaren 5etik maiatzaren 26ra izango duen mostran dihardu lanean, 60ko hamarkadatik gaur egun arte egin dituen ekintzen aukeraketa bat ekarriz eta obra berria aurkeztuz. Parisen bizi den artista donostiarra aitzindaria izan da performancearen munduan, gorputza eszenaratzen eta bizitza eta artea ulertzeko erabateko jarrera feminista azalduz. Ferrerrekin solastatzeko aukera izan dugu bere ibilbide artistiko oparoan jada mugarri bilakatu diren hainbat gaien inguruan sakonduz.

TESTUA | **JONE ALAITZ URIARTE**
ARGAZKIAK | **MARIA ELORZA**

Badago 1967ko obra bat, *Biografia para una exposición* non soinean jantzia duzun pankarta batek honakoa duen idatzia: "Instalazioak egiten ditu, argazkiekin lan egiten du, objektuak sortzen ditu, proiektuak eta batik bat, ekintzak". Gaur egun *curriculum* hori mantentzen jarraituko zenuke?
Garai horretan ekintzak egiten nituen batik bat, erakusketa gutxitan hartzen nuen parte, emakumezkoen erakusketaren batean edo bestean edo talde proiektuetan; baina ekintzak egitea zen gehien gustatzen zitzaidana, eta hala jarraitzen du izaten. Ekintzen iraupen gutxiko izaera gustatzen zait eta ez dutela arrastorik uzten. Ez duzu ezer garraiatu behar, ekintza pentsatzen duzu, egiten duzu, bukatzen duzu eta etorri zaren bezala bazoaz. Sinpletasun horrek erakartzen nau.

60ko hamarkada erdialdean, José Antonio Sistiaga margolariarekin batera Euskal Herrian aurrekaririk ez zuen proiektu pedagogiko eta artistikoa jarri zenuen martxan, izaera abangoardista zuen Eskola Esperimental pilotua.
Horren aurretik Donostian Haurren Adierazpen Libreko Lantegia [TEL, gaztelaniazko sigletan] jarri genuen martxan eta aitortu behar dut ideia Sistiagarengandik etorri zela. Sistiagak seme-alaba asko zituen eta kezkatuta zegoen haiei emango zien heziketarekin. Izan ere, garai haietan zegoena baino heziketa irekiagoa eskaini nahi zien bere umeei. Orduan Frantzian bizi ziren eta bertan bazeuden pedagogia berriak proposatzen zituzten hainbat metodo, hala nola Freinet, Montessori edo Stern. Eta hemen horrelako zerbait egiteko asmoarekin Frantziara joan nintzen formakuntza jasotzera eta ondoren Donostian lokal bat alokatu eta lanean hasi ginen. Margolaritza klaseak eskaintzen genituen eta artearen bitartez umeak estimulatzen saiatzen ginen beraiek markatzen zituzten helburuetara heldu zitezen. Umeekin asko hitz egiten genuen, eta esperientzia horretatik asko ikasi nuen.

Ondoren jarri zenuten abian Elorrioko Eskola Esperimentala.
Donostian egiten genuena Haur Hezkuntzara eramatea ideia ona izan zitekeela pentsatu genuen, Freineten metodoa aplikatuko lukeen eskola bat sortzea, alegia. Ikasbide horren muina umeen interes guneak piztean eta lantzean datza, hots, ikasleen interesak definitu eta horiek abiapuntu bezala hartuz klaseak garatzea. Nik euskarazko liburutegi bat sortu nahi nuen ikasleek euskaraz irakurri eta idatzi zezaten. Izan ere, garai haietan oso zaila zen euskaraz idatzitako liburuak aurkitzea. Esperientzia aberasgarria izan zen, ikasle mordoxka izan genuen baina egia da ez zuela gehiegi iraun.

Jorge Oteiza ere handik zebilen, ezta?
Oteiza pare bat alditan etorri zen bai, eta asko animatzen gintuen jarraitzera, gustatzen zitzaion egiten ari ginena.

Urte batzuk geroago ZAJ-eko kideak ezagutu zenituen Donostian.
Hala da, Sistiagak berak esan zidan hitzez hitz: "Oso gauza arraroak egiten dituzten lagun batzuk datoz Donostiara eta emakume bat behar dute ekintza bat egiteko. Zu zara hiri honetan horrelako zerbait egin dezakeena". Ekintzan parte hartzera animatu nintzen eta bukatutakoan ea beraiekin lan egin nahiko nukeen galdetu zidaten. Eta horri ere

baiezkoa eman nion baldintza batekin: nahi nuena egiteko askatasuna izatea. Ez zidaten inolako trabarik jarri.

30 urtez aritu zarete lanean elkarrekin. Zer-nolako oroitzapenak dituzu?
Taldean lan egiteak abantailak eta desabantailak ditu, baina errespetu asko genion elkarri eta ez genuen sekula elkar zentsuratu. Ez genuen batera sortzen, bakoitzak bere obrak eta ekintzak zituen, eta hauen autoretza errespetatu egiten zen. Ekintzak hala eskatzen bazuen, gainontzeko kideok parte hartzen genuen. Egia esan, esperientzia oso ona izan zen, asko bidaiatzen genuen eta jende asko ezagutu genuen bidean.

John Cagek 1973an bira bat antolatu zizuen AEBetatik. Nolakoa izan zen esperientzia hori?
Cagek gure lana 1972ko Iruñeko Topaketetan ikusi zuen eta berehala esan zigun egiten genuena "amerikarrek ezagutu beharra zutela". Guk uste genuen amerikarrak kokoteraino egongo zirela tankerako gauzak ikusteaz, baina egia esan, urtebete geroago Estatu Batuetan geundela, jendeak oso harrera ona egin zigun eta nabari zen egiten genuenak inpaktua bazuela. Gure ekintzek zerikusi handia zuten musikarekin, hein handi batean Cageren eta Duchampen oinordekoak ginen, baina gaiari heltzeko eta problematizatzeko era oso sinplea geneukan, ezerezarekin egiten genuen lan, hutsarekin.

Eta Espainiako Estatuan, nolako harrera zuen ZAJek?
Denetariko erreakzioak izan genituen, batzuek barre egiten ziguten, beste batzuk haserretu egiten ziren, baziren kuriotsitate handiz begiratzen gintuztenak…

Hemen ekintzak kontzertu izendatzen zenituzten. Zergatik?
Cagek esaten zuen bezala, guztia zen musika, soinua musika zen, zarata musika zen baita isiltasuna ere; eta horregatik gure ekintzak kontzertu kontsideratu zitezkeen. Bestetik, frankismo garaian, kontzertuak ziren zentsuratik pasatzen ez ziren diziplina bakarra. Orduan gertatzen zen jendeak uste zuela biolin kontzertu bat ikustera zetorrela eta bat-batean gure ekintza batekin egiten zuela topo [barre egin du]. Baina ez zen sekula zentsuratzailerik etorri.

Musikaren haritik jarraituz, zure ekintzen jarraibideei ere "partitura" deitzen diezu.

Musikariz inguratuta bizi nintzen, ZAJ-eko Juan [Hidalgo] eta Walter [Marchetti] musikariak ziren eta nire senarra [Tom Johnson] konpositorea da, beraz, suposatzen dut ideia hortik etorriko zitzaidala. Ideia bat dudanean, egiten dudan lehenengo gauza apuntatzea da, eta ondoren ideia hori estrukturatzen dut. Espazio batean kokatzen dut, izango dituen mugimenduetan pentsatzen dut, iraupen bat ematen diot, erritmo jakin bat eta guzti hau idatzi egiten dut. Ondoren, eskolan soinketako irakasleak marrazten zizkigun piktograma horietakoak ere marrazten ditut partitura hauetan, asko dibertitzen nau hori egiteak, baina beti ere oso eskema sinplean egiten dut. Partitura ekintza ororen abiapuntua da, ondoren infinituraino aldatu dezaket, bariazio mordoa egin, baina ideia beti errespetatzen dut. Performance bat egiteko ideia bakarra nahikoa bada, ez ditut bi ideia sartuko. Oso minimalista naiz zentzu horretan.

Denborak ere garrantzi handia du zure obran, badirudi zerbait fisikoa dela.
Niretzako denbora elementu bat gehiago da, lehengai bat, fisikoa, mahai bat edo aulki bat izan daitekeen bezala. Ez dakigu zer den denbora, inork ez daki, eta horretaz ohartu gaitezen nahi dut, igarotzen den denboraz, instanteaz. Izan ere, bizitzen ari garen momentua ez da beste inoiz errepikatuko. Ekintza edo performance bat egitea elkarrekin biziko dugun momentu bat sortzean datza. Eta zentzu horretan, niretzako, bizitzak zeharkatzen ez duen performanceak ez du inolako interesik.

Matematikari estuki lotutako ibilbide luzeko lanak ere badituzu, *Poema de los números primos* eta *Pi*, adibidez. Badirudi matematikarekin obsesio puntu bat dagoela zure obran.
Poema de los números primos 70eko hamarkadaz geroztik lantzen ari naizen proiektua da. Zenbaki lehenak maite ditut. Izan ere, inork ez daki esaten infinituak ote diren edota bukatu egiten diren; eta gustatzen zait frogatzea gero eta zenbaki handiagoetara heldu, orduan eta tarte handiagoak sortzen direla zenbaki lehenen artean. Eta ikerketa hauek lengoaia plastiko batera eramaten saiatzen naiz, Tabakalerarako egin dudan zoruko obran bezala. Pi-zenbakiarekin antzeko obsesioa daukat. Helduko al da dezimal luze hori amaituko den momentua? Einstenek esaten zuen bezala, infinitua pixka bat luzea egiten da, batik bat, amaiera aldera.

Martxoaren 8an milaka emakume irten dira kalera. Zuk zeuk beti aldarrikatu duzu feminista sutsua zarela. Nola ikusten duzu egungo egoera?
Beti esaten dut beharrezkoa den bitartean feminista izaten jarraituko dudala. Egun nabari da emakumeen eskubideen aurkako erreakzio gogor bat datorrela, eta beraz, argi egon behar dugu eta intelektualki prest, etsaia nondik datorren ikusteko. Azken urteotan feminismoak mundu mailako eskala hartu du eta gizonezkoa inguratuta sentitzen da, bere boterea galtzeko beldurrez; eta beldur horren aurkako erreakzioa biolentzia handikoa izan daiteke.

Emakumeok 60ko hamarkadaz geroztik gure egoeraren inguruko hausnarketa sakon bat egin genuen. Menderatze horrek zergatik iraun du horrenbeste denbora? Zergatik izan gara guzti horren konplizeak? Zergatik irentsi dugu horrenbestez? Hausnartzen hasten zara, ondorioak ateratzen eta jarrera batzuk jasan ezinak bilakatzen zaizkizu, inposaturiko estereotipo estetiko batzuekin apurtu nahi duzu eta berez naturalak bezala irakurri ditugun zenbait ereduekin apurtzen hasten zara. Guk asko hitz egiten genuen horren inguruan, asanblada eta bilerak antolatzen genituen eta askatasun osoz hitz egiten genuen.

Eta gizonezkoek aldiz...?
Tamalez, gizonezkoek ez dute ariketa hori oraindik egin. Ez dute matxismoaz hitz egiten, ez dute oraindik beren baldintzaren inguruko hausnarketarik egin. Gizonezkoak iristen badira guk egun batean izan genuen umiltasuna izatera, eta beraien artean hitz egiten badute eta ikusi beraien pribilegioek nola eragiten diguten emakumezkoei, orduan hasiko dira gauzak aldatzen. Eta agudo egin behar dute gainera. Izan ere, boterean daudenak emakumeen eskubideei zuzenean eragiten diguten legeak aldatzen hasiko dira era gizonezkoek ezer egiten ez badute, erreakzionatzen ez badute, benetako errudun eta konplizeak izango dira.

> **Gizartea aldatzen ari da emakumezkoak aldatzen ari garelako, benetako aldaketa geurea da**

Nire ustez, gizartea aldatzen ari da, emakumezkoak aldatzen ari garelako, benetako aldaketa geurea da. ●

Emakume meatzariak eta immoralitatea

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Britainia Handia, 1842ko maiatza. "Enplegu Batzordearen haurren lanari buruzko txosten" osatu berria argitaratu zuten eta berehala eskandalua zabaldu zen gizartean, komunikabide nagusien bidez. Txostenaren helburua, berez, haurrek meatzeetan lanean zeuzkaten muturreko baldintzak jasotzea eta salatzea zen. Baina viktoriar zintzoak asaldatu zituena ez zen hori izan, meatzeetan lanean ari ziren emakumeak gerritik gora biluzik aritzen zirela jakiteak baizik; meatze zuloetako tenperatura jasangaitzak eraginda, ohikoa zen meatzariak ia biluzik jardutea.

The Times eta *The Morning Chronicle* egunkariek emakume horiek irudikatzen zituzten grabatuak argitaratu eta meatzeetan lan egin zezaten debekatzeko kanpaina abiatu zuten. Anthony Ashley-Cooper Shaftesuryko kondeak zera bota zuen Parlamentuko hitzaldi batean: "Neska horiek lanean ikustea baino irudi lizun eta higuingarriagorik ezin da imaginatu. Ezta burdeletan ere".

Baina Lord Ashley ez zen sekula meatze zuloan sartu hura egiaztatzera. Jelinger Symons eta Samuel Scriven Enplegu Batzordeko kideek txostena egiteko hainbat meatze bisitatu zituzten, baina haiek ere ez zuten frogarik bildu. Scrivenek txostenean jaso zuen behin "emakume" bat ikusi zuela alkandorarik gabe Hopwood (Yorkshire) meatzean; Susan Pitchforth zen, 10 urteko neskatoa.



THE BRITISH LIBRARY

ZER DA IMMORALA IRUDI HONETAN? VIKTORIAR GIZARTEAREN USTEZ, EMAKUMEA GERRITIK GORA BILUZIK JARDUTEA.

Hala ere, dozenaka lekukotza jaso zituzten emakume haien aurka, frogarik gabekoak baina iritzi sutsukoak: immoralitatea erabat zabaldua zegoen, emakume meatzariek ama eta emazte zintzoak izateko grina baztertzen zuten eta horren froga garbia zen igandean mezetara joateari utzi izana.

Emakumeak beren burua justifikatzen saiatu ziren. Batzuek zioten etxera iristean nekatuegiak zeudela etxea garbitzeko edo haurrak zaintzeko, baina ahalegina egiten zutela. Beste batzuek igandeak erabiltzen zituzten astean zehar etxean pilatutako lan guztia egiteko. Margaret Baxter 50 urteko meatzariak azaldu zuen, goizeko lauetan sartzen zela meatzean eta eguerdian irteten zela gaixorik zegoen senarra zaintzeko eta alabei josten irakasteko. Ann Fern eta Bessy Bailey gazteek kozinatzen eta josten ikasten eman behar zituzten igandeak eta horregatik ezin zuten mezetara joan...

Alferrik. 1842ko udan bertan, eskandalua piztu eta bi hilabetera, Meatzarien eta Ikazkinen Legea onartu zuen Londresko Parlamentuak, 10 urtez azpiko haurrei eta emakumeei meatzeetan lan egitea debekatzeko. "Meatzean lan egitea ez da atsegina, baina okerragoa da gosez hiltzea" esan zuen emakume meatzari batek.

Eta, hala, batzuk meatzean lanean jarraitu zuten, onuragarria baitzen familientzako –diru-sarrera urriak zertxobait gizentzeko– eta, batez ere, ugazabentzako; emakumeei soldata erdia baino gutxiago ordaintzen zieten. Gainera, isunak ez ziren oso handiak eta gehienetan emakumeei beren soldata kaxkarretatik kentzen zieten ordaindu beharrekoa. ●

Errenazimenduko liburu elektronikoa

Liburu elektronikoek hainbat alde on dituzte: besteak beste, hainbat liburu nahi dugun orrialdean zabaltzeko aukera ematen dute. Bada, Agostino Ramelli (1531-1600) militar, ingeniari eta asmatzaile italiarrak aukera hori ematen zuen tramankulua asmatu zuen lau mende pasatxo lehenago. Liburuen Gurpila jarri zion izena, eta egurrezko noria birakari modukoa zen, dozena bat ohol zituena. Ohol bakoitzean liburu bat jar zitekeen eta irakurleak nahi zuen orrialdean irekita eusten zion. Hala, gurpila biratuz, liburuak modu ia automatikoan kontsulta zitezkeen. Desabantaila bat nabarmentzekotan esan behar da Ramelliren gurpila ez zela egungo liburu elektronikoak bezain eramangarria. ●

LIBURUA

Espektro bat euskal letretan

EZAGUTZAREN MATAZAK
EMAGIN
SUSA, 2018

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Ezagutzaren matazak liburuari buruz hitz egiteko dramatikoegi jarriz gero kritika hau hasiko nuke esanez: "Espektro bat dabil euskal letren plazan". Misterioa jarraian argituko nuke: "Espektro hori da sorkuntza kolektiboa". Alta, ez dago dramatiko jartzeko beharrik eta agian adibide xinple batzuk aski dira esan nahi dudana adierazteko.

Ezagutzaren matazak Emaginek kolektiboki sortutako liburua da, baina ez da gisako bakarra. Badago adibidez Bilgune Feministaren *Trans-sexualitateak*. Kontua feminismoan bukatzen dela uste duenak laster aurkituko du Gasteizko Gaztetxeak urteurrenaren aitzakiarekin idatzitako liburua. Tendentzia herri mugimenduetara mugatzeko tentatuta dagoena ere erratuta legoke. Hor daude adibidez, Txakur Gorriako lagunak eta *Tupust* komikia. Eta tira, irakurtzen zabiltzan ARGIA honek ere ez dauka zuzendaririk ardurak taldearen artean banatu dituztelako.

Agian merezi du pentsatzea ari dela zerbait gertatzen euskal letren plazan, eta zerbait horren baitan, *Ezagutzaren matazak*-ek kokagune bereizitik hitz egiten duela. Izan ere, besteek ez bezala, ezagutza kolektibo hori eraikitzeko moduetan jartzen du arreta Emaginen testuak. Hortaz, ez soilik kolektibotik, baizik eta kolektiboaz hitz egiten digu. Emantzipazioaz, herrigintzaz, akademiatik sortutakoen kezkez, metodologia feministaz, kidetzeko beharraz, erabateko autonomiaren mitoaz eta aditu eta arituen bereizketaz jantziko da irakurlea kapitulu ezberdinetan zehar.

Sarrera eta ondorioez gain, liburuak bi atal nagusi ditu. *Matazaren hari-muturrak* atalean irakurleak lekukoaren tokia hartzen du. Testuak lortzen du Emagineko lan saio batean parte hartzen ari zarela sentiaraztea beste hamar kiderekin batera. *Hari bilketak* kapituluak lau ikerle-aktibistarekin kontrastatzen ditu esandakoak. Hemen ere irakurlea zuzeneko ikusle sentitzen da ezagutza kolektiboaren eraikuntzan.

Nik neuk gozatua hartu dut liburua irakurtzen. Iruditu zait pentsamendu kritikoa nondik dabilen eta norantz doan ezagutzeko aukera paregabea dela. Eta aukera da liburuak egiten digun deiari erantzun eta lekuko izatetik parte hartzaile izatera igarotzeko. ●



DISKOA

Bidaiako geltoki eder bat

HEZURREN AZPIAN
MAITE LARBURU
GAZTELUPEKO HOTSAK, 2019

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Oso disko polita plazaratu du Maite Larburuk. Kantetan, nagusiki, folk eta pop kutsuko melodiak entzuten dira, baina rock eta jazz ukitu batzuk ere antzeman daitezke. Baina, batez ere, jolasa, umorea, naturaltasuna eta grina. Kanta atseginak dira, gertukoak, gustura entzuten direnak. *Gona* abestiaren bideoklipak apur bat laburbiltzen du hori guztia.

Harmonia, melodia eta erritmo politak jarri dizkie hitzei, eta oso ongi josi eta osatu du dena. Kantak haien artean desberdinak dira, baina denetan Maiteren nortasun handia nabari da.

Grabazio saioetan, Maitek biolina jo eta abesteaz gain, gitarra elektrikoa, gitarra klasikoa, xilofonoa eta zintzarriak erabili ditu. Harekin batera, musika hauek aritu dira: Carlos Taroncher (klarinete baxua), Aida Torres (perkusioak) eta Beñat Iturrioz (perkusioak). Halaber, hitzak idazteko garaian Harkaitz Canoren laguntza estimagarria izan du.

Hamabost urte Herbehereetan igaro ondoren, *Hezurren azpian* diskoarekin Larburu Hernanira bueltatu da, bere jaioterrira. Horrela, kanta guztiak euskaraz sortu ditu –Neighbor taldearekin egin dituen bi diskoetan euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz aritu da–.

Biolina jotzea du ogibide, antzinako musika jotzen duten Europako zenbait talderekin. Musikari bidaiaria da, nomada moduan lan egiten baitu Erdialdeko Europan, antzinako musikaren zirkuituan.

Bizitza osoa musikaren munduan murgilduta egon dela esan daiteke. Zazpi urterekin hasi zen musika ikasketak egiten bere herrian, eta ondoren Madrilen eta Amsterdamen ere ikasten aritu da. Master bat egin zuen antzinako musikan espezializatuta, eta horrela abiatu zuen bere ibilbidea.

Amsterdamen Neighbor taldea sortu zuen duela urte gutxi batzuk, Josh Cheathamekin, eta harekin batera ondu ditu *Ura patrikan* (2013) eta *Hau* (2016) lanak. Neighbor taldearekin bi disko horiek plazaratu ondoren, *Hezurren azpian* da bere lehendabiziko bakarkako lana. Esan bezala, lan horrekin etxera bueltatu da. Baina seguruenik bidaiako geltoki bat izango da, geltoki eder bat. Bidaiatzen jarraituko baitu, etengabe mugitzen, eta musikazaleak harritzen, luzea eta oparoa –orain arte bezala– izatea espero dugun ibilbidean. ●

ELKANO FUNDAZIOA

Elkano: zeinen eredu?

MUNDUBIRA: ELKANO, PRIMUS ANTZEZLANA

NOIZ: martxoak 22
NON: Bilboko Untzi Museoa

AMAIA LEKUNBERRI

Loraldia festibalean estreinatu zuten, martxoaren 22an, *Mundubira: Elkano, Primus* antzezlan musikatua (antzezpenari kantua gehitzen dio Ainara Ortegak, eta biolina jo Nerea Alberdik). 1519an itsasoratutako Fernando Magallaesen espedizioaren V. mendeurrenaren karira ekoitzi dute lana. Mundu bira haren nondik norakoak ditu ardatz, eta Juan Sebastian Elkano marinel getariarra da protagonista nagusia. Bilboko Itsas Museoan egindako lehen pasean egoteko aukera izan nuen, espresuki ikasleentzat zen emanaldian "infiltratuta". DBHkoak behar zuten ikaslez osatutako publikoaren erdian, Elkanoren figuraz ikusleek egin zezaketen irakurketaren gaineko kezkak ondoko aulkian hartu zuen eserleku.

Argiak itzali eta fokuak piztean, Getariako marinelaren balentriez ezezik, haren ekintza kriminalez mintzo den antzezlanarekin egin nuen topo. Magallaesen espedizio famatutik hiru urtera, 1525ean, Indonesiako Molukak uharteetarantz abiatu zen ontzian kokatzen da istorioa, Elkano (Iñigo Araburu) hil urren eta eldarnioak hartuta dagoela. Ondoan du Juan de Zubileta (Xabi Ortuzar), Magallaesen espediziotik bizirik itzulitako itsas-mutil barakaldarra, lehorreratzean izango duen bizimodu erosoarekin amets egin eta aurreko espedizioaren heroikotasuna etenik gabe azpimarratzen duena. Baina Elkanok, bere ekintza ilunenak aitortuz, Zubiletaren kontakizunak belzten ditu: bidean aurkitutako herrialdeen zapalkuntza, bertokoen hilketak, esklabotza, bortxaketak... Jaungoikoaren izenean krimenak egin zituztela, itsasoratutako bost ontziak gerrarako tresneriaz gainezka zihoazela eta Mediterraneo itsasoko urak, bere eskuak bezala, odolez tindaturik daudela aitortzen du marinelak, bere azken hatsetik hurbil.

Aitorpenak aitorpen, bere bertsio heroikoari eusten dio Zubiletak: Elkanok bere izena zenbat eta gehiago zikindu, haren figura geroz eta idilikoagoa indartzen du barakaldarrak. Getariarra bere senera etorrarazten saiatzeko asmoz –edo, nondik begiratzen den, haren irudi garbiari eusteko– Elkanok Espainiako Erregeari idatzitako gutuna ahots goran irakurtzen du. Elkanok, baina, ez du arestian esandako ezer gezurtatzen, eta esandakoa berretsiz hiltzen da.

Antzezpenari dagokionez maila onekoa den obrak badu ikusle honen begietara hutsune bat: historia kontatzeko era. Iruditu zait espedizioaren alde ilunenak ageriko egiteak objektibotasun itxuraz jantzi nahi duela antzezlana. Ispilatze bat. Bere onean zegoenean getariarrak harro idatzitakoak eta errealitatearekiko nozioa mantentzen duen barakaldarraren testigantzak kontrajarri ezkero eldarnioak jota dagoen gizajo baten esanekin, egun arte ofizialki gailendu den getariarraren figura heroikoa bultzatzen delakoan nago. Elkano gaizkileari Elkano heroia gailentzen zaio beste behin. Eta heroikotasun zantzu txikiena tartean den heinean, nork eta Espainiar Inperioaren mesedetara jardundako kolonizatzaileak, norbaiten eredu izaten jarraituko du. PPko buruzagi Pablo Casadorena, kasu, baina ez zapalkuntza-sistema orotatik libre den herri bat ortzi-mugan dugunona. Zenbaitzuon memoria historikoan Elkanok ez duelako –edo ez lukeelako izan behar– ohorezko tokirik, *Haika Mutil* eta *Oh Pello Pello* abestien biolin-doinuz lagunduta ere, espainiar konkistatzaile itxura izaten jarraitzen baitu. ●

Hitz gezidunak

- Eragozpen, traba / Bat ere ez
- Laño, tolesgabea / Omen
- Neuri
- Bihar ez, hurrengoan / **Pertsonaiaren izena**
- Itsasontzien soka / Gazur egosiaren hondarra
- E.Herriko mendizerra / Trebetasuna
- Punta, gailur / Begira
- Baratze landarea / Egunaren zati iluna
- Praseodimioa / Ondorio gisa
- Etorri / Txioa
- Luzakin haragitsu / Telefono publikoa
- Gobernatzearen antzea / Santu, deun
- Jaurtigai txikia / Korapilo
- Inauteri / Burdin mota
- Erbioa / Iratzarri
- Zorraren ordaina
- Argibide / **Pertsonaiaren abizena**
- Irriz / Ibai gaineko pasabidea
- Borroka, liskarra
- Baimena eman / Izena (laburdura)
- Basamortuko berdegunea / Dauzka
- Tripa-handi / Lurjausi
- Nauka / Garai, aldi
- Garbigela / Paladioa
- Sufrea / Pare bat (alderantziz)
- No / Pozkida eman
- Kontsumorako prezioen indizea / Kiloa
- Fitsik, ezer ez / Tona
- Zornotzako auzoa (Bizkaia)

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

			1	8				
	7	6		5		4		
	8					5		6
6	4		2					5
		1				9		
3					8		6	4
2		8					4	
		5		4		8	9	
				1	7			

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Laztasunez.
2. Martxan.
3. Zirtolariaren esana.
4. Katu ar.
5. Norabait.

EBAZPENAK

5X5:

1. LAZKI
2. ABIAN
3. ZIRTO
4. KATAR
5. INORA

5	2	4	1	8	6	7	3	9
1	7	6	3	5	9	4	2	8
9	8	3	7	2	4	5	1	6
6	4	7	2	9	1	3	8	5
8	5	1	4	6	3	9	7	2
3	9	2	5	7	8	1	6	4
2	1	8	9	3	5	6	4	7
7	3	5	6	4	2	8	9	1
4	6	9	8	1	7	2	5	3



Amanda Figueras

KAZETARI MUSULMANA

"Musulman erradikala pertsona umila da, ez errugabeak hiltzen dituena"

Islamaren inguruan irakurri eta ikasi ahala joan zen Amanda Figueras federa hurbiltzen. Une batetik aurrera bere erlijio egin zuen, familian aurrekaririk izan gabe, Madrilen. Ordutik, islamofobiaren aurkako lanean dihardu, erlijioaren inguruko tabuak hautsi nahian. Europar emakume zuri izateak egiten du berezi bere prozesua, eta talaia horretatik mintzo da.

TESTUA I **ANDER PEREZ**
ARGAZKIAK I **JOSU SANTESTEBAN**

AURREIRITZIETATIK SINESMENERA

"Katalunian jaio nintzen 1978an, baina zortzi hilabete nituela lekualdatu ginen Madrilera. Han eta Lisboan ikasi nuen kazetaritza, eta *El Mundo*n eta hainbat hedabidetan egin izan dut lan. Une batean, islamari buruz ikasten eta irakurtzen hasi eta aurretik nekiena faltsua zela ikusi nuen, nire jakintzak aurreiritzi eta topikoetan oinarrituta zeudela. Ikasketa eta gogoeta prozesu luze baten ostean erabaki nuen gustatzen zitzaidala, eta modu horretan nahi nuela bizi. Egun, NBEren Zibilizazioen Aliantza programaren bekaduna naiz, eta Erlijioen eta Kulturen arteko elkarrizketarako Abraham foroko kide. *Por qué el islam: mi vida como mujer, europea y musulmana* liburua idatzi dut".

Sinesgabea zinen, eta zure kabuz hurbildu zinen ismalera. Zerk erakarri zintuen?
Gauza askok, baina batez ere familia barruko loturen garrantziak eta emakumeak islamean duen paperak. Horri buruzko ideiarik ere ez nuen.

Zein da paper hori?
Ez nekien emakumea halako garrantzitsua izan zenik islamean. Adibidez, islama bereganatu zuen lehen pertsona emakumea izan zen, baita Korana denbora luzez zaindu zuena edo profetaren esanak gehien transmititu zituena. Hari esker dakizkigu guretzat orain eredu diren gauza asko.

Bateragarriak dira islama eta feminismoa?
Feminismoarekin lotutako gauza asko zalantzan jartzeko prozesuan ari naiz, batez ere hiztegiari dagokionean. Orokorrean, ez naiz mugimendu feminista hegemonikoagatik interpelatua eta babestua sentitzen, eta min ematen dit. Badirudi libre izateko modu bakarra haiek nahi dutena dela: ateoa izatea, erlijiorik gabea.

Emakume musulmanaz hitz egiterakoan, beloa agertzen da etengabe, eta normalean debekuaz edo inposizioaz hitz egiten da.
Uste dut eztabaida gainditu behar dela, ez duelako ekarpen handirik egiten. Nik, noski, emakumearen askatasuna defendatzen dut, baita nola jantzi eta publikoki nola agertu erabakitzerakoan ere. Derrigortzearen eta debekatzearen kontra nago. Derrigortzea ilegala izan beharko litzateke, eta islamaren kontrakoa ere bada, islamean ezin baita inor nahi ez duen ezer egitera derrigortu.

Baina ematen da.
Argi dago emakume musulman askok pairatzen dutela injustizia larria. Baina ez zaie bakarrik emakume musulmanei gertatzen, denei baizik, gradu batean edo bestean. Beloa libreki janztea erabaki dugunok erregimen totalitarioen kon-

"ISLAMEAN PENTSATZEN DUGUNEAN BIZAR LUZEA DUEN ARABIAR BATENGAN ETA BELOA DARAMAN EMAKUME BATENGAN PENTSATZEN DUGU, BAINA MUSULMAN MOTA ASKO DAGO, ETA GAINERA GEHIENAK EZ DIRA ARABIARRAK".

plizetzat jo izan gaituzte, batzuk beloa janztera derrigortzen dituzten erregimenenena. Esan izan didate kendu beharko nukeela, derrigor eraman behar dutenekiko elkartasunez. Hori eskatzea islamofoboa da, injustua izateaz gain. Ez nazatela ni bihurtu egin ez dudanaren erantzule.

Zer-nolako oztopoak bizi izan dituzu islama zureganatzeko prozesuan?
Lehenbizi barne oztopoak gainditu behar izan nituen. Pentsatzen nuen: "Nola zango naiz ni musulmana? Ni, parrandan ateratzea hainbeste gustatzen zaion hau?". Gero, publikoki musulman gisa azaltzerakoan hasi ziren arazoak: bat-batean, ez nintzen eskubide osoko hiritar espainiarra; musulman gisa irakurria nintzen, musulmana izatea balitz bezala nire identitate bakarra. Kolektibo gutxitu batzuei –etorkinei kasu– ezartzen zaizkien estereotipoak ezarri zitzaizkidan. Aldi berean, ikasketa prozesu bat izan zen: argi ikusi dut nola tratatzen diren gutxiengoak. Tristea izan da baieztatzea arrazistak eta klasistak garela, eta islamofobia handia dagoela .

Zer dela eta ematen da estigma hori?
Gauza asko dira, hasi azalpen historikoetatik eta ezjakintasuneraino. Islama ezagutu behar dela esaten dut beti. Islama, eta ez hainbeste musulmanek egiten dutena, ez baitator beti bat. Ezin da milioika kide dituen populazio bat herrialde edo pertsona batzuk egiten dutenera murriztu. Islama anitza da, heterogenoa, sentsibilitate askokoa. Islamean pentsatzen dugunean bizar luzea duen arabiar batengan eta beloa daraman emakume batengan pentsatzen dugu, baina musulman mota asko dago, eta gainera gehienak ez dira arabiarrak.

Hiztegia ere estigma bide izan ohi da.
Espoliazio bat eman da, ezjakintasunagatik, eta baita modu interesatuan ere. Gure termino batzuk komeni den moduan erabiltzen dira, zentzua aldatzen zaie. Adibidez, "islam erradikala" esatean, islama berez arriskutsua edo bortitza dela ematen da aditzera. Islama ez da bortitza, eta bere buruari musulman esan eta indarkeria erabiltzen dutenak ez dira erradikalak, desbideratuak baizik. Musulman erradikala pertsona oso ona litzateke, beti barkatzen duena, besteak jartzen dituena norberaren aurretik. Pertsona umila da musulman erradikala, ez errugabeak hiltzen dituena.

Ahotsik ez duzuela salatu izan duzu.
Emakume musulmanoi gure janzkeraz eta terrorismoaz hitz egiteko bakarrik deitzen digute. Arazoa da ez digutela deitzen Kataluniako independentziaz edo hauteskundeez edota hezkuntza publikoaz hitz egiteko. Ez gara eskubide osoko hiritartzat hartuak, gure identitate musulmana da ikusten den bakarra.

"Madrilgoa eta musulmana?". Zenbatetan egin dizute galdera hori?
Jendeak ez du ulertzen nola izan naitekeen Mendebaldekoa eta musulmana. Mendeetan, iberiar penintsulako kultura nagusi eta arrakastatsua izan zen musulmanena. Askotan hartzen naute marokoartzat, eta ez dit minik ematen, maite dudalako Maroko. Kontua da haiek, ni marokoartzat hartuta, menpeko pertsona gisara kokatzen nautela, ikasketarik gabea, otzana, pobrea. ●

BERANDUEGI

KRONIKA SERIOSA EGITEKO

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Iturgaizek politika utzi ondoren jakin du “jendeak” bizi ahal izateko “lana egiten” duela

EUROPAN GOGOR LANEAN ARITU DA ITURGAIZ AZKEN URTEOTAN

Carlos Iturgaizek joan den astean amaitutzat eman zuen bi hamarkada baino gehiagoko ibilbide politikoa, PPk Europako hauteskundeetako zerrendetan nahiko atzean jarri zuela jakin ostean. Albisteak maila berean eragin ditu sorpresa eta tristura euskal gizartean, ez baitira esku batekin zenbatzekoak politikari bizkaitarraren jarraitzaileak. Baina ezusteko handiagoa hartu du Iturgaizek berak, orain kontu korronteko dirua gastatu bai, baina berririk sartzen ez dela ikustean: “Esplikatu didate que orain dirua es didate susenean bolsillora emango, que egin behar dut lana jendeak besala”, azaldu dio Beranduegiri. Medio honek jakin ahal izan duenez, Iturgaizi oso gaizki iruditzen zaio hori eta testu marxistak irakurtzen hasi da “kapitalismoia terrorismoa besala bencitxeko”. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Obamakoak

Iparraldearen oreina

@josukristo bidez

Gure-rekin kokoteraino, Esku-k prozesu subiranista abiatu du, Dago-k independentzia aldarrikatu ostean

Gure Esku Dago-k galdeketa egin du berau osatzen duten hiru subjektu politikoen artean, eta gehiengo absolutua lortuta Dago-k erabaki du independentzia aldarrikatu eta bere bide propioa hastea. Gure-k eta Esku-k elkar helduta jarraituko dute, baina litekeena da luzerako ez izatea, Esku-k ere prozesu subiranista abiatu duelako. Bi galdera luzatuko dizkie gureskutarrei: “Nahi al duzu estatu burugabe bateko herritarra izan?”. Baiezkoa erantzuten dutenek bigarren galdera bat erantzuteko aukera izango dute: “Nahi al zenuke eskual estatu hori independientea izatea?”. Baiezkoak irabaziz gero, Esku-k ere ospa egingo du eta, Gure-k, berak bakarrik antolatu beharko ditu etorkizuneko galdeketa guztiak. “Lanean segiko dugu aske eta demokratikoki erabakitzeko eguna heldu arte”, azaldu digu Gure Eskuko eledun Galder Itaunek. ●

AZOKA.ARGIA.EUS

AZOKAN SALGAI!
15€

+4€ BIDALKETA GASTUAK

KAZETARITZA EZ DA DELITUA
ARGIA

Hizkuntz eskubide baten urraketaz informatzeagatik epaituak

#UtziArgiaBakean

ARGIA

ZENBAT GARA?



ARGIA komunitatea zenbat kidek osatzen dugun jakin nahi dugu.
Erantzun galdera honi mesedez:

Harpidetzaren atzean zenbat lagun zaudete?

ERANTZUNAK
zenbatgara@argia.eus · 943 37 15 45